

# ARGIA

## “CAFen aitortza morala eskatzen dugu amiantoaren biktimentzat”

Otsanda Tolosak frogatu du aita enpresaren babes faltak hil zuela

28-31. orriak



# 2.709 | 2020 / 11 / 22 | 3,90 €



**Herri pobreei ez diete zorra barkatu, atzeratu baizik**

10 | NET HURBIL



**“Guardia zibilek aita hil zidaten tiroz, Altsasun”**

12 | JUSTI IGUZKIZA



**Inkizioaren arrazoi politikoak Nafarroan**

22 | SORGIN EHIZA

DATORREN ASTEKO ARGIAREKIN...

# DEKOLONIALITATEA

MUGIMENDU FEMINISTAREN ERRONKA



**LARRUN #257**  
HILABETEKARI MONOGRAFIKOA

ARGIA.EUS/LARRUN

## Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 08 | EKONOMIAREN TALAIAN
- 09 | HUMANITATEAREN UNE GORENAK
- 09 | EZ HANKA EZ BURU

AZALEKO ARGAZKIA:  
DANI BLANCO

## Iritziak

- 17 | DAVID BOU
- 18 | MAIALEN BERASATEGI
- 19 | DIEGO PALLÉS
- 19 | UXUE APAOLAZA
- 20 | FERMIN ERBITI

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:  
CLIPART COURTESY FCIT

## Finkoak

- 40 | DENBORAREN MAKINA
- 41 | ARGIA KOMUNITATEA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 54 | ARGÍ-KONTRA:  
ELENA SALA
- 58 | BERANDUEGI



SHUKARE OTERO

### 22 | SORGINAK

Axier Lopezek erreportaje honetan azaldu du Inkisizioak izan zuen funtzio politikoa eta garaiko inperio zein jauntxoaren aurka altxatuko herritarrak izan zirela "sorgin" izendatuak eta zigortuak. Ilustrazioak Shukare Oterorenak dira.

## Elkarrizketak eta erreportajeak

10 | NET HURBIL

### COVID-19: Iparrekoek Hegoko herriei ez diete zorra arintzen

Jenofa Berhokoirigoin

12 | PERTSONAIA | JUSTI IGUZKIZA

### "Biktima batzuek ez dute aitortzarik, eta horietarik naiz ni"

Miel A. Elustondo

28 | EKONOMIA | OTSANDA TOLOSA

### "CAFen aitortza morala eskatzen dugu, aitagatik eta etorriko diren amiantoaren biktima guztiengatik"

Urko Apaolaza Avila

32 | POLITIKA | JAUME ASENS

### "Ez dugu Kataluniako presoek indultua ez den bertze agertokirik ulertzen"

Saioa Baleztina

36 | EUSKARA | AHOZKOTASUNA IKASTETXEETAN

### Pandemian herdoildutako mihiak olioztatzen

Onintza Irureta Azkune

44 | KULTURA

### Komisariotza sinposioa Bilbon

Jone Alaitz Uriarte

46 | KULTURA | "PROLETKULT" NOBELA

### Marxismo martetarra

Julen Azpitarte

### Jabetza

Komunikazio Biziagoa  
S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea  
**Lehendakaria**  
Bego Zuza  
**Erredakzioa**  
Amaia Lekunberri, Axier Lopez,  
Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre,  
Gorka Bereziartua, Jenofa Berhokoirigoin,  
Jon Torner, Jone Markuleta,  
Lander Arbelaitz, Mikel Garcia,  
Onintza Irureta, Pello Zubiria,  
Urko Apaolaza, Xabier Letona,  
Zigor Oleaga  
**Diseinua**  
Maitane Gartziandia  
**Argazkilaria**  
Dani Blanco  
**Produktzioa eta inprimaketa**  
Antza S.A.L.  
**Administrazioa:**  
Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde  
**Salmenta**  
Idoia Arregi, Karlos Olosola,  
Olatz Korta  
**Idazkaritza**  
Aloña Soraluze, Bego Zuza  
**Web garapena**  
Asier Iturralde  
**Informatika**  
Iametzta interaktiboa, S.L.

### Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

**Batzorde parekidea**

72562 E

### GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

#### Posta elektronikokoak

komertzial@argia.eus

harpide@argia.eus

#### Telefonoa

943371545

#### Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa

Xalbardin baita. 64122 Urruñe

#### Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina

31001 Iruñea

Ametzagaiña taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:

**antza**  
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

**iametzta**  
interaktiboa

**ADUR** software  
productions

## Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.

**OLATUKOOP**

EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN  
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

KALEAN NAHE DI  
ELS VOLEM AL



FUGU  
CARRER



## Lau urteko antzezlan traketsa

Azaroaren 14an lau urte bete dira Espainiako Guardia Zibilak Altsasuko zazpi gazte atxilotu zituenetik, boteretik gertuko hedabideen fokupean. Ondoren etorri zen mende honetan Euskal Herrian izan den kriminalizazio saiakera handienetako bat. Alde Hemendik aldarrikapen eta herri mugimendua, gazteria, independentismoa eta Altsasu herriaren kontrakoa, baina baita elkartasun eta babes mugimendu handi baten sorrera ere. Antzezlan judizialaren ondorioak ez dira amaitu, Jonan Cobi eta Julen Goikoetxeari hirugarren gradua ukatu diete eta. Irudian: Larunbateko ekitaldian Elias Taño artistak murala osatu zuen Altsasun, aurretik Valentzian hainbat aldiz margotu eta zentsuratutako bera.

## MOTZEAN

**Zaballako espetxean preso zegoen emakume bat hil zen urriko azken astean, Arabako Salhaketak jakinarazi duenez. Aurten Zaballan hiltzen den bosgarren preso da.**

**Ibon Fernandez Iradi larriki gaixo den presoak positibo eman du koronabirusean. "Hasieratik eskatu dugu larriki gaixo diren presoak etxera ekarri behar zirela", salatu du Sarek.**

**Iruñean lagun bat bortxatzea egotzita bost urteko kartzela-zigorra ezarri dio Nafarroako Auzitegiak gizon bati. Bederatzi urteko zigorra eskatu zuen fiskaltzak, baina mozkorra egotearen salbueslea aitortu dio Nafarroako Auzitegiak.**

**Eusko Jaurlaritzak eredugarritzat jarri ohi duen EAEko Lanbide Heziketa publikoak badu gainditu gabeko ikasgai bat: euskara bigarren mailakoa da oraindik. Ziklo gehienak A erudian direla kritikatu du LABek.**

**Manuel Merino Peruko bitarteko presidentek giza eskubideak urratzen dituela salatzen dituzte protestak egin dituzte kaleetan, eta bi hildako eta desagertu ugari izan dira. Azkenean, Merinoko uko egin dio presidentetzari.**

# Gerra Saharan

ARGIA

**A**zaroaren 13an, Marokok operazio militarra abiatu zuen Guerguerat inguruan. Indar Armatuen Estatu Nagusiak iragarri zuen "segurtasun hesi bat" ezarri zutela Guerguerateko pasabidean, saharar zibilen protesten ostean. Fronte Polisarioaren ustez, Maroko korridore horren legez kanpoko erabilera egiten ari da, 1991n sinatutako su-etenaren arabera, su-etena babesteko baino erabili behar ez litzatekeen eremua baita, eta ez Europara era guztietako merkantziak garraiatzen dituen pasagune gisa. Hala, su-etenaren urraketa da eta ondorioz, hautsizat jo du akordioa eta gerra egoera ezartzea erabaki du. Brahim Ghali SEAD Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoko presidentek hartu du erabakia, eta dei egin die bere indar armatuei "segurtasun nazionalaren kontrola" hartzeko. Horregatik, Marokok eraikitako "segurtasun harresian" zehar dauden postu militar marokoarren aurka hainbat eraso egin ditu asteburuan.

Marokoko okupazio indarrek dozenaka gazte atxilotu, tratu txarrak eman eta torturatu dituztela salatu dute hainbat sahararrek asteburuan. Equipe Media Giza Eskubideen erakundeak jakinarazi duenez, Maroko nazioarteko zuzenbide humanitarioa urratzen ari da. Marokok, bestalde, jakinarazi du ez ziela zibilei eraso egin, Fronte Polisarioak kontrakoa dioen arren. Marokok su-etenaren akordioa urratu zuenean irtenbide baketsu baterako aukerak galdu zituela sinesten du Mohamed Mohamed Eluali Akeik SEADeko lehen ministroak, *Berriari* adierazi zioen moduan. Ziurtatu du bakera bueltatzeko akordio guztiak mahai gainean daudela, baita borroka armatua ere.

## EUROPAKO BATZORDEAREN ETA NAZIO BATUEN ERAKUNDEAREN ERANTZUNA

Josep Borrell Europako Batzordeko lehendakariordea Nasser Bourita eta Sabri Boukadoum Marokoko Erresumako Kanpo Arazoetako ministroekin bildu zen azaroaren 15ean, El Guerguerat inguruan izandako azken gertakarien inguruan hitz egiteko. Goi ordezkariak 1991tik indarrean dauden su-eten akordioak errespetatzeari funtsezko garrantzia eman dio, eta berretsi du EBk erabateko babesa ematen diela Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluak horretarako egiten dituen ahaleginei.



Euskal Herriko herri askotan elkarretaratzeak egin zituzten joan den asteburuan, Sahara aske baten alde. Irudian, Iruñeko protesta.

EKINLIK

# Baratze bat



ARITZ GALARRAGA

**H**iri handitik ezin ateratzeak ernatu du nigan berde behar bitxi bat, orain artean sekula ezagutu gabea. Ados, beti izan zait atsegingarri berdetasuna begiestea mendian, basoan, golf zelaian, baina oraingo hau da, seguru obligazioak behartua, ia-ia bitala, arnasten dugun airea bezain, eta kutsadura maila gorabehera –etxealdia hasi zenetik behera egin omen du-. Noski, hor zehar ezin, eta, otu zait, balkoian berean abiatzea nire berde zatia, nire jardina, jardintxoa, xumea, txikia, ikusezina ia; nahikoa, ordea, nahi bestetan bisitatzeko, nahi bestetan bi-ziarazteko. Eta Jakoba Errekondori inolako konpetentziarik egin asmo gabe, bistan da.

Azken batean, zer da ba jardina, lilitegi, lore baratze bat, ez-pada paradisuaren berregitea, paradisuaren bilaketa lurlean, gizajendearen garapen izpirituala ahalbidetzen duen lekua, denboraren joanaren korrosiotik babesten gaituena. Baratzetik kanpo dago mina, heriotza, gerra, gosea; baratzearen baitan plazera, bizitza, bakea, asetasuna eta batez ere armonia. Greziarrek ez zuten asko maite izan, galdetu Homerori bestela: mugikortasuna hobetsi zuten atsedanaren aldean, uste zuten zela pentsatzera dedikatzen zenarentzat denbora galtzea. Epikuro iritsi zen arte: "Komeni da gizajendeak bere burua kultibatzea, bilaka dadin baratze bat norberarena, ikas dezan eguneroko plazerez gozaten, bizitza sinpleaz eta konplikaziorik gabekoaz, bestelako saririk espero gabe". Altxa dezala eskua ni bezala une honetan berean epikuroar aldarrikatzen denak!

Walter Benjaminek esan zuen, ondo ulertu badiot, behintzat, hiria dela mundua, ez natura, bere bizitza eta bere haurtzaroa baino denbora askoz aitzinekoago batean dagoeneko galdua. Baina gure beharra hortxe dago, gure berde beharra, baratzea, kanpoko eta barruko baratzea lantzearena, besterik ez bada baratze hiritar batena. ●

"SEGURTASUN  
GLOBALAREN LEGEA"



## "GAZTEOK EZINBESTEKOAK GARA HIZKUNTZA BATEN TRANSMISIOAN"

### MAITE SARASOLA, GAZTEALDIKO PARTE-HARTZAILEETAKO BAT

Bederatzi gazte zortzi egunez euskara hutsean bizitzen saiatu dira. Lutxo Egia artistak 2015ean egindako ariketa errepikatu nahi izan dute. Azaroaren 12tik 19ra euskara baino ez dute hitz egin eta Gaztealdia deitu diote ariketari. "Helburua hizkuntza talkak zeintzuk diren ikustea eta ostera horiei aurre egiteko baliabideak lortzea dela esango nuke. Adibidez banketxera edo osasun zentrora goazenean eta gaztelaniaz erantzuten digutenerako baliabideak sortzea, nolabait jarreran tinko mantentzeko", dio Sarasolak. [URIOLA.EUS](http://URIOLA.EUS) (2020/10/11)



## EKONOMIAREN TALAIAN

## Lemoiz gelditu!



JUAN MARI ARREGI

Jose Luis Zumetak, Vicente Ameztoyk eta Carlos Zabalak duela berrogei urte nuklearren aurkako jardunaldi batzuetarako margotu zuten *Lemoiz Gelditu* horma-irudia erakutsiko da Bilboko Arte Ederren Museoan. Autokritikarik egin gabe, EAJko sailburu batek aurkeztu du.

Museo batean dago azkenean ikusgai horma-irudia, kontserbatzeko urte luzetako ahaleginaren ostean. Museo horretako patronatuko kide Iberdrola da, euskal kostaldean urte haietan hainbat zentral eraikitzeko erasoaldi nuklearren arduradun nagusia. Hildako ugari eragin zituen nuklearren kontrako borroka zabalaren ondoren –tartean langileak, zuzendari bat eta ETako militanteak–, proiektu horiek ez zuten aurrera egin.

Borroka hura ezagutu ez zuten gazteek horren berri izan beharko lukete. Jakin dezatela, EAJk Lemoizen alde egindako eraso politikoa gora-behera, herritarrek zentrala geldiaraztea lortu zutela. Xabier Arzalluz EAJko buruzagiaren esaldia ezaguna da: "Lemoiz ixten bada, azak jango ditugu eta kandelarik argituko gara". Berrogei urte geroago, ez azarik, ez kandelarik, ezta zentral nuklearrik ere.

Jakin dezatela denek, Lemoiz geldiaraztea lortu genuen arren, Iberdrolari bidegabeki ordaindu behar izan diogula gure argi-fakturarekin 25 urtez 2.273 milioi euro baino gehiago. Batzuen konplizitate politikorekin ezarri diguten zigorra izan da.

Gure herriaren eskubideen aldeko borrorak eta grebak ez dira errazak, baina bai eraginkorrak, baldin eta helburuak lortzen irmo saiatzan bagara. Lemoizena eredugarria izan zen. Gaur egun, belaunaldi berriek sistema kapitalista oso bat dute aurrean, herriak beren burua autodeterminatzera eragozten duena: individualismoa, indarkeria, langabezia, gizarte-bazterketa, pobrezia, desberdintasuna, prekariedade, migrazioa, matxismoa, ustelkeria.... Horiek guztiak gaurko gure "Lemoiz" dira. ●

## ANALISIA



15 urteko Mikel bilbotarrak aspaldiko desioa bete zuen: eskolara gona jantzita joatera ausartu zen, baina ikaskideen irainak jasateaz gain, ikastetxeko psikologora bidali zuen irakasleak. Gona kentzera animatu zuen psikologoak.

## Eskola lotsarazi duen gona

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Mikel gona jantzita joan da eskolara, eta ikastetxeak denontzat espazio seguru eta babesgune direnez, hainbat ikaskideren irainen aurrean irakasleak aprobetxatu du klasea gelditu, Mikelen ausardia txalotu eta generoaz, aniztasunaz, enpatiaz eta askatasunaz eztabaidatzeko. Hori baita hezkuntzaren funtsa... baina ez da hori gertatu.

Bere buruari uko egin ordez, genero rolei uko egitea erabaki zuen Mikelek, nahiz eta jakin ikaskide batzuren trufak jasan beharko zituela. Azken finean, gizartearen isla da eskola hein batean, baina gizartearen arauak eta joerak auzitan jartzen dituen eremua ere behar luke izan, baita norbere identitatea adierazteko espazio eroso bat ere. Maiz, ordea, hurbileko girorik eta konfiantzazko erreferentziarik ezean, bakardadea aurkitzen du eskolan ezberdin sentitzen denak, gizartearen prototipoetan kabitzen ez denak, bere lekua topatzeko zailtasunak dituenak. Mikelek bere ikastetxean aurkitu zuena izan zen irakasle bat klasea gelditu zuena 15 urteko mutikoa eskolako psikologora bidaltzeko –aurretik barre egin zioten ikasleei arrazioa emanez, nolabait–.

Pandemia garaia berretsi omen du curriculumari lotutako irakaskuntza baino garrantzitsuagoa dela emozioak, harremanak eta ikasleen beharrak lehen lerroan jartzen dituen eskola, eta hezkuntza emozionalaz eta berdintasun planez betetzen zaigu ahoa, baina errealitatea bestelakoa da sarri. Ziur ezberdin jokatzen duten ikastetxe eta irakasleak badirela, eta egia da Mikelekin elkartzunez gona jantzi dutela ikasleek beste hainbat eskolatan; sekulako aukera dute ikastetxe horietan, ekintza sinbolikotik harago gaia lantzeko. Gazteek aldarrikatu dute gonak ez duela generorik, eta desio ederra da hori, baina errealitatea da gonak genero oso markatua duela eta gona janzten duen mutila neskak bezala janzten ari dela edota maritxua dela gizartearen begietara. Neskak bezala janztea edota maritxua izatea zergatik den gutxiesgarri eta iraingarri, horretaz gogoetatzeko geratu dezatela klasea irakasleak. Hori baita hezkuntzaren funtsa. ●





Jakoba Errekondok garaiko uztak eta baratzea, fruitu arbolak eta basoko lanak.  
 Pello Zabalak aukeratutako esaerak.  
 Xabier Ormaetxea Akizuk ilargiaren eragina eta saioak.  
 Maria Thunen egutegi biodinamikoarekin osatua.

7€

**Jakoba Errekondok** garaiko uztak eta baratzea, fruitu arbolak eta basoko lanak.

**Pello Zabalak** aukeratutako esaerak.

**Xabier Ormaetxea Akizuk** ilargiaren eragina eta saioak.

**Maria Thunen** egutegi biodinamikoarekin osatua.

**Neurriak**

Irekia: 480x340 mm.  
 Itxia: 240x340 mm.

Paretan eseki ahal izateko zuloa darama.

**Erosteko:**

943 37 15 45  
[argia.eus/azoka](http://argia.eus/azoka)



BIZI BARATZEA

# COVID-19: IPARREKO ABERATSEK HEGOKO HERRIEI BIDERATU LAGUNTZEK EZ DIETE ZORRA ARINTZEN

Koronabirusaren lehen olatuaren erdian ginela, hitz ederrak entzun ziren G20-ko Finantza ministroen zein Nazioarteko Diru Funtsaren partetik: Hegoaldeko herri pobreak laguntzea ezinbestekoa omen zitzaien eta horretarako zorraren ordainketa une batez gelditzea onarturik zuten. Baina horrek ez du ezeztatzea erran nahi eta azken lau hamarkadetan handituz doan zorrak emendatzen segitzea da arriskua. Zorraren zurrumbilari, baita hau kontrolatzen dabiltzan eragile boteretsuei ere so jarri gara, egoera ulertu nahian. Ondorioa argia da: benetan pobreziatik atera nahi badituzte, zorrak ezeztatzea onartu beharko dute.

## JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Zor kolonialaren zama eta nazioarteko finantza instituzioek inposaturiko austeritate dieta hamarkada luzez jasan behar dituzten Hegoko herriek, berriz ere parean dute NDF Nazioarteko Diru Funtza izeneko su-hiltzaile piromanoa, esaldia irakur dezakegu *Detzte, coronavirus et alternatives* (Zorra, koronabirusa eta alternatibak) gai nagusitzat daukan *Les autres voix de la planète* aldizkarian. CADTM Zor Bidegabean Kontrako Komitearen komunikabidea da azken hau, eta laguntzen gaitu ulertzen zorren esferaren funtzionamendu konplexua, munduaren Hegoko herriek pairaturikoa eta aberatsenek –estatu zein egitura pribatuek– erabakitakoa. Zergatik zorpeturik diren? Finantza merkatuaren bilakaeratik ezin ordainduriko maileguak eginez zorpetzen hasi zirelako –mailegatzaileek onarturikoak, hots, kulpa ez da osoki haiena– eta zor hauek ordaintzeko beste mailegu batzuk egiten dabiltzalako; interes tasengatik ordaindu beharrekoa mailegaturikoa baino handiagoa bilakatuz. Hori horrela, 3.000 bilioi dolarrekoa da Hegoko herrien zorra.

*The Guardian*-ek zehazten duenez, 60 herri pobreenek diru gehiago bideratzen dute zorraren ordainketara, ez eta osasun sistemara. Ghanak adibidez, COVID-19 pandemia erdian hamaika aldiz diru gehiago bideratzen du zorra ordaintzera.

Apirilean, koronabirusaren lehen olatuaren erdi-erdian, zorren ordainketarako luzamendu bat adostu zuten G20-ko

Finantza ministroek munduko 73 herri pobreenentzat (unilateralki finkatu irizpideei segi, garapen bidean diren herrien erdia laguntza horretatik kanpo utziz). 2021ko ekainera arteko geldiuena lortu dezakete beraz –ondotik 2022 eta 2024 urteen artean ordaindu beharko dituztenak, seguruenik interes tasa handiagokin–. NDFk eta Munduko Bankuak ere dirua banatu die herri txiroenei, zorraren ordainketa aitzina eramaten laguntzeko –hots, bi erakundeek zorren ordainketa jasotzearekin errekuuperatuko dutena–. Milan Rivié CADTMko kideak dioen gisara: “Gutxiengo ttipia emaitza bidez eta gehiengoa mailegu bidez banatu da. Errealitatean, krisia hasi denez geroztik, jaso baino diru gehiago itzuli diote Munduko Bankuari herri pobreenek”.

## ZORRA EZEZTATZEAREN PREMIA

Epe laburreko “laguntza” horiek arazoa ez dutenez konpontzen, zorraren deuseztatzea eskatzen dabilta geroz eta eragile gehiago –adierazgarriena urrian 550 egiturek izenpetu adierazpen bateratua–. “Krisia hasiz geroztik Europar Batasunak eta AEBek 2.500 bilioi dolar desblokeatu badituzte beren ekonomiak laguntzeko, ez dirudi oztopo gaindiezina denik Hegoko 135 herrien –munduko biztanleriaren %83aren– 3.000 bilioi dolarreko zorra ezabatzea”, ondorioarekin bukatzen du Riviék *Six mois après les annonces officielles d’annulation de la dette des pays du Sud: Où en est-on?* (Hegoko herrien

zorraren deuseztatzearen albiste ofizialaz geroztik sei hilabete pasa direla: Zertan gaude?) artikulua. Dioenez, zorraren analisi teknikitik analisi politikora pasa behar gara: “Zorra oroz gainetik politikoa da”. Azaltzen duenez, nazioarteko zuzenbidean hiru elementuk bidera dezakete zorraren ezeztatzea: “salbuespeneko egoera” (zorpetze hein ikaragarria), “premiatzko egoera” (koronabirusak eragindako osasun gastuak, baita sozialak ere estaltzeko beharra) eta “egoeraren funtsezko aldaketa” (koronabirusaren pandemia).

Lau hamarkada zorraren zurrumbilohonetan sarturik direla, atera ezinean. 33 urte iragan dira Thomas Sankarak Afrikako Batasunaren aurrean ondokoa erran zuenetik: “Zorra ezin dugu ordaindu, hasteko, ez pagatuta ere mailegu emaileak ez direlako hilko; eta pagatuz gero, gu garelako hilko”. *Manière de voir* aldizkariko *Métamorphoses de la dette africaine* (Afrikar zorraren itxuraldaketak) erreportajeaz azaltzen da nolatan 1996an Afrikako hainbat herrik jaso zuen zor arintzeen efektua: “Saharaz hegoaldeko Afrikaren zorra 2 bilioi dolarretik 331 bilioira pasa zen 1970tik 2012ra; eta ordainketak 435 bilioi dolarrekoak dira, hots, mailegaturiko kapitala bider lau”.

Lehengaien prezioak gora eginik, 70eko eta 80ko hamarkadetako egoera ekonomikoak onera egin eta maileguak biderkatu zituzten Hegokoek, joera



### G20 ETA HEGOKO HERRIAK

KORONABIRUSAREN IZURRITEA DELA-ETA, HEGOKO HERRIEN ZORRAK EZEZTATZEA EZ DU ONARTU G20-AK. ALTA, EHUNKA EGITUREK ESKATZEN DUTE ZORRA DEUSEZTATZEA, POBREZIATIK ATERATZEKO EZINBESTEKO BALDINTZA DUTELAKO.

frenetiko batean, Ekonomia Lankidetzaren eta Garapenerako Antolakundearen gain munduko bankuetan ere. Baina bestak ez zuen iraun eta 1980ko hamarkadatik goiti maileguak ordaintzeko zailtasunak agertu zitzaizkien. Gogoaren kontra, Munduko Bankuaren zein NDFren laguntza pozoitsua onartzea baino beste biderik ez zuten ukan. “Zorpeturiko herriak bi egitura hauen sarean hartuak ziren; zordun gizajoak bi egitura hauek finkatu performantzia irizpideen eta baldintza ekonomiko zein finantzarioen menpe daude”, *Manière de voir-en Nouvel ordre économique mondial* (Munduaren ordena ekonomiko berria) artikuluan irakurri daitekeenez. Liberalismora eta austeritate bideraturiko neurriak gauzatzeko baldintzapean jasotzen dituztelako maileguak: pribatizazioak, soldaten

emendioen gelditzea, aurrekontu orekatua lortzeko murrizketak, merkatuaren desarauketa eta abar. Achille Mbembe filosofo kamerundarrak dioen gisara: “Kolonialismotik atera gara, berehala zorpetzearen uztarpean kausitzeko”. Hori horrela, koronabirusaren izurriteari aurre egiteko duten osasun-sistema ahula ere horren emaitza dute.

### AUSTERITATEAREN BALDINTZA

“NDF eta Mundu Bankuak bideratu ‘Washingtongo kontsentsua’ deitu politika hauek nazio osoak dituzte xehatu 1980ko hamarkadaz geroztik, zorren zuloa estaltzea lortu gabe”, William Bouchardon ekonomia kazetariaren hitzetan. Ezin aipatu gabe utzi geroz eta pisu gehiago duten funts putreak, krudeletan krudelenak: estatu zorpetuak

egoera txarrean direlarik proposatzen diete zorrak erostea, merke-merke, oinarriko prezioa baino prezio askoz apalagoan; eta egoera ekonomikoa hobetzeko bidean, onartu beharra daukate. Kontua da, hortik gutxira, auzitan jarritz, hasierako zorra osoki ordaintzea exijitzen dietela –interesa tasak barne–. Demagun, 1999an 87 milioi dolar pagatu behar izan zizkion Leucadia funtsari Nicaraguak, epaile batek hala erabakirik, 1,14 milioi dolarretan erositako zorra ordaintzeko.

Mailegatzaile hauek geroz eta pisu gehiago dute eta estatu pobreen zorrak arintzeko neurriekin ez dute bat egiten, ezta ere koronabirusaren garai honetan. Miseriarekin espekulatzen ari direlako: zinezko putreak, ahulenen hezurduran atzaparrak sarturik. ●

**ZINKUNEGI OPTIKA**

Hernani 23 · 20004 Donostia  
T. 943 420 624  
info@zinkunegioptika.com  
www.zinkunegioptika.com

f w

# Justi Iguzkiza

GUARDIA ZIBILAREN INDARKERIAREN BIKTIMA



## BIKTIMA BATZUEK EZ DUTE AITORTZARIK, ETA HORIETARIK NAIZ NI



Plaka bat Altsasuko kalean, garai bateko estrata nagusian.  
“Hemen erail zuen Guardia Zibilak Emilio Iguzkiza 1934ko urriaren 8an...  
Semea besoetan zuela tirokatu zuten”. Hamalau hilabete zituen delako  
seme hark orduan. Justino zen. 87 urte ditu egun.

 MIEL A. ELUSTONDO  ZALDI ERO

### **Zure aitaren heriotza latzak ekarri nau Altsasura...**

Gure aitak izena zuen Emilio Iguzkiza, Deikaztelukoa zen, baina Altsasura etorri zen lanera, Urbasako errepideko lanetara, Lizarra eta Altsasu lotzera. Gure amarekin ezkondu zen, Frantziska Otxoa de Eulate, eta bost seme-alaba izan zituzten. Azkena, ni. Esaten dute 1934ko urriaren greba egunak izan zirela, istiluak ere bai, eta atxilotzeak. Eta, hilaren 8an, urriaren betiere, manifestazioa egin zutela Altsasun. Guardia zibilak azaldu ziren, eta Constantino Salinas, zeina Nafarroako Diputazioko buru izandakoa baitzen, eta Agustin Okariz udal zinegotzia atxilotu zituzten. Jendea guardia zibilen kontra hoska hasi zen, gero baino gero beroago, eta guardia zibil batek tiro egin

zuen. Gure aita hil zuen. Ni, hamalau hilabete haurra, aitaren besoetan nengoena, haren altzoan erori nintzen, biok lurrera.

### **Noiz aditu zenuen, lehenengoz, historia hori?**

Hemezortzi urte izango nituen... Bost se-nide izan ginen etxean, baina amak ezer esaten ez zuen. Berak, gutxiena! Etxean inork ez zuen ezer kontatzen eta, kalean, batzuek eta besteek, pertsona larriek, aita ezagutu zutenek, kontatzen zidaten zerbait ere. Hamalau hilabete haurra nintzen, ez dut gertatuaren oroitzapenik eta ez dakit kontatu didatena besterik. Baina, esate baterako, behin, joan da nire emaztea udaletxera agiri bat eskatzera, eta, han, berriketan, gure aita mundu

honetatik pulmonia batek eraman zuela aditu behar izan zuen. Heriotza “naturala” izan zuela. Nire emazteak, orduan: “Zer ari zara zu, ordea? Emilio Guardia Zibilak hil zuen, nire senarra besoetan zuela!”. Horrelaxe. Aita hil ziguten, eta horrelakoak aditu behar. Eta bizi egin behar, hala ere.

### **Eta nola bizi izan zineten, aita Guardia Zibilak hilik?**

Ahal zen moduan! Altsasun bizi izan ginen beti, baina bateko etxean eta beste-koan... Bizimodu eskasa izan dut, arras eskasa. Gorriak ikusita nago, eta gose errabiatua pasatua. Txikitan, gizona ikusi platanoa jaten, hark azala bota, nik hartu eta jan! Hori ere eginak gara. Gero, artean mutiko, Agurainera joan behar



## EMILIO IGUZZIZA

Emilio Iguzziza (1914-2000) was an Italian politician and journalist. He was a member of the Italian Communist Party and served as a member of the Italian Parliament. He was also a prominent figure in the Italian labor movement and a member of the Italian Council of Ministers. He was known for his work in the fields of labor rights and social justice.



# Justino Iguzkiza Otxoa de Eulate

ALTSASU, 1933



1934an guardia zibilek Altsasun hildako Emilio Iguzkizaren semea. Batean eta bestean jardun zuen lanean, nahiz urterik gehienak Altsasuko Sunsundegin egin zituen. Lan-istripua izan zuen eta 51 urte zituela sartu zen erretretan, bizkarrezurra hondaturik. Hamalau eba-kuntza izan ditu, eta egunotan du hamabosgarrena. Ez zioten lan-istripua legez aitortu. Poliziaren gehiegikerien biktima denik ere ez diote legez inoiz aitortu.

izan nuen, morroi, behorak zaintzera, Santa Maria eliza ondoko etxe batean. Ez nuen luze iraun. Eskapatu eta atzera Altsasura etorri nintzen, etxera. Zartakoka hartu ninduten, eta atzera Agurainera bidali ninduten. Han, berdin, aulki txiki batean jarri eta bi zartako eman zizkidan nagusiak. Eta tren hartu eta berriz eskapatu nintzen, etxera. Gero, noizbait, Idiazabalgo bi andre gertatu ziren gurean: “Nahi duk gurekin etorri baserriko lanera? Erakutsiko diagu!”. Nik, baietz, eta haraxe. Hamar urte egin nituen Akotain-azpikoan, Zezilio eta Jenobebarekin. Gurea zen Akotain-azpikoa, eta gorago beste baserri bat zen, Akotain-garakoa.

## Den gutiena estudiantu zenuen? Eskolarik bazen?

Zer edo zer ibili ginen, bederatzi urte arte, baina ez zegoen jatekorik ere, eta bila abiatu behar. Bizia bera izan nuen eskola! Eskolarekikoak egin eta Agurainen nintzen, eta, gero, hamabi urterekin-edo, Idiazabalen. Agurainen gaizki, eta Akotain-azpikoan zoragarri. Aspaldi da hara joan ez naizela, baina, lehen, handik pasatzen nintzenez, beti begiratzen nuen baserrira...

## Zertan zen bizia zuen etxean? Zertan ziren ama eta anai-arrebak?

Arreba zaharrena, adibidez, Lerinera ezkondu zen. “Amerikarrak” esaten zieten andre batzuen etxean bizitu zen. Haiek hiltzean, gure arreba horri utzi zioten herentzia guttia. Anaia, berriz, han eta hemen ibili zen, kartzelan ere eduki zuten eta, azkenean, Nafarroako Diputazioan hasi zen lanean, eta hantxe etsi zuen. Amak... gorriak ikusarazi zizkidan. Ez zidan bakean bizitzen uzten. Ez baininduen maite! Orga batean ere lo egin izan nuen, bebarruan. Eta goizeko lauretan, ama etorri eta patata-zaku artera eraman ninduela ere gogoan daukat. Hantxe lo ni. Gorriak eta beltzak ikusiak nagoela, bada!

## Eta zu...

Ni oso zintzoa nintzen, eta halaxe naiz oraindik ere. Inoiz ez dut inorekin errietarik izan. Jakina, adiskide eta lagunekin eztabaidak bai, gauza

betikoak, baina horrez gainera, ezer ez. Artean gazterik, Deikaztelura joan nintzen, aitaren herentzia erreklamatzera. Etxetzar handi bat genuen eta lehengusina bat bizi nuen han; aitaren iloba. Haren kontu zen etxearen zerga eta kontribuzioak ordaintzea, eta esan nion: “Erakutsi ordainagiriak, orain arte ordaindu duzuna kitatuko dizut nik”. Alferretan. Bateko anaia, beste-ko arreba, eta, azkenik, lehengusina, dena saldu zuten. Kale gorrian utzi ninduten, goian zerua eta behean lurra.

## Idiazabalen bizi izan zinela esan duzu, baserriko lanetan. Euskaraz beharko zenuen Akotain-azpikoan...

Bai, bada! Eta ikasi nuen. Idiazabalen hamar urte egin eta Altsasura itzuli nintzenez, gaztelaniaz ez nekien! Nola edo hala hitz egiten nuen hemengo amonarekin, baina lagunartean isilik beti ni! “Eta hik, zer diok, bada? Mutu eta isil?”, aditu behar izaten nuen. Gaztelaniaz ez nintzen gauza, hitzik ez nekien. Gero, alderantzira gertatu zitzaidan, euskara atzenuela. Inor euskaraz zuzentzen bazait, ulertzen diot, gutxi bada ere. Baina hitz egiten ez dakit.

“  
Amak... gorriak  
ikusarazi zizkidan. Ez  
zidan bakean bizitzen uzten.  
Ez baininduen maite! Orga  
batean ere lo egin izan  
nuen, bebarruan”

Zer dela-eta itzuli  
zinen Idiazabaldik  
Altsasura, han pozik  
bizi izanda?

Adiskideak joaten zitzaidan, ikustera. Bizikletak hartu eta Altsasutik Idiazabalera, maldan beheara. Baina gu, baserrian, uda bazen belarretan ari ginen. Negua bazen, arbitan, simaurretan... beti lanean. Haiek, berriz, tentatu egiten ninduten: “Altsasun badituk feriak ere, eta igandeetan, soinu eta dantza!”. Halaxe berotu ninduten. Eta etorri nintzen. Ezertarako ez! Alferretan!

## Zer esan nahi duzu? Zer edo zertan jardungo zenuen herrira itzulita...

Ergelkeria franko hemen! Behin, parrukoarekin haserrea ere izan nuen. Igandez, egurra egin nuelako. Ez zitzaien gustatu: “Salatu egingo haut, igandean lan egiteagatik!”. Ezesateko bat erantzun nion. “Orain okerrago! Kartzelara sartuko haut!”. Asto beltzarenak eta bi bota bainizkion. “Zuk ni



kartzelara sartu, baina irten eta akabatu egingo zaitut!, esan nion. Horrelaxe. Eta Olazagutian hasi nintzen lanean, zementutan. Baina ez zen posible han lan egitea. Gela batean sartu, zakuak pilatu... aurpegia eta hankak erre zizkidan porlanak. Etxera etorri, bizikleta hartu eta atzera Idiazabalera egin nuen!

### Berriz Idiazabalera?

Bai. Jenobebak hartu ninduen. Aurpegia ikusi zidanean, gurina atera eta aurpegia dena igurtzi zidan. Horrelaxe. Eta baserrian gelditu nintzen, bigarrenez. Zeziliok, ezetz zioen: "Etxera itzuli behar duk!". Nik ere ezetz, ordea, eta hantxe izan nintzen beste lau urtez. Tarte horretan ez nintzen Altsasura batere etorri. Akordatzen naiz, herrian feriak zirela ere, gu Etzegaraten ibili ginela, garotan! Eta Idiazabalen izan nintzen soldadutzara joan arte. Eta Ceutara.

### Hogeitaka urte zenituela jakin zenuen aitaren historia...

Batak eta besteak esaten dizkizutenak aditu nituenean! Besoetan hartu ninduen gizona ere ezagutu nuen. Hila da. José Zornoza. Baina ez dakit zeinen eskuetan utzi ninduen, gure amarenera joan ote zen zuzenean, edo nora. Ez dut inoiz jakin. Galdetu bai, hamaikatan galdetu dut, baina erantzunik ez. Ama ze-

nari ere bai: "Kalean jaso nindutenean, etxera ekarri ninduten, orduan?". "Ez, etxera segituan ez". "Eta, hortaz?"... Amak ere ez zekien.

### 2015ean omenaldia egin zitzaion zuen aitari. 1934ko urriaren 8 hartan Altsasuko kalean gertatua antzeztu zuten.

Bai. Hunkigarria izan zen. Memoriaren [historikoa] aferetan dabilzanek ere ez zekiten historia osoa. Josuk [Imaz, Altsasu Memoria] aditua zuen haur haren historia, ezagutzen ninduen, baina ez zekien neu nintzela haur hura! Elkar ezagutzen genuen, baina ez ninduen haur harekin lotzen.

### Nola berrosatu zenuten historia galdu hura?

Josu-eta ibili ziren horretan. 1936ko Gerraz gerokoa aztertzen hasi ziren, nonbait, eta gerraurrekoak ere ikertu zituzten. Eta 1934ra jo zuten. Grebak eta protestak Asturiasen, eta handik batera eta bestera zabaldu omen zen greba haren sua, eta Altsasura ere heldu zen. Eta grebak eta protestak hemen ere, eta Guardia Zibila ere tartean, eta tiroak... Nafarroa osoan hildako bakarra izan zen, eta Altsasun! Gure aita! Hildako bat, eta bi zauritu, balaz. Altsasun betiere. Guardia Zibila errepiderraino joan omen

## ERREPARAZIOA

"2015ean egin zen omenaldian jende asko bildu zen. Ederra izan zen. Ikusi egin behar zen, guardia zibilen lana egiten zutenak. Bertan sartu eta zartakoka hasteko gogoia ematen zuen... Altsasu beti jo dute oso gogor, 1934an, gerran, eta gerra ondoan ere. Justizia eta erreparazioa aipatzen dituzte, baina zer justizia? Erreparaziorik, berriz, ez dago".

## ISUNA

"Omenaldia egin eta gero, isuna jaso zuen Altsasu Memoriak. Eskatua zuten baimena Nafarroako Espainiako Gobernuaren Ordezkaritzan, baina aitzakia jarri zuten errepidea moztu zela, pasabidea galarazi zela, eta isuna. Baina autoak pasatzeko tokiak zegoen, ferriak direnean askotan egiten den bezala. Baina alferrik da. Isuna, hainbat euro ordaindu behar, kalea itxi omen zelako".

### Azken hitza

## "ADIOS AITA"

"Hura poza, plaka jarri zutenean! Handik igarotzen naizenero, ukitu egiten dut aita, hitz egiten diot... "Adios, aita!", beti. Plaka ukitu eta "Adios, aita!".

zen, tiroka! Altsasu Memoriakoek egunkari zaharrak arakatu zituzten, atxilotuen izenak argitaratu zituzten, *No me avergoncé del Evangelio* [Marino Ayerra] liburua ere aztertu... Horrela ibili omen ziren. Josuri [Imaz] aditutakoa dakit nik, ez besterik. Beste liburu bat ere argitaratu zuten gero Josu Chuecak-eta [Octubre de 1934 en Euskal Herria. Revolución, insurrección y huelga general], eta hor gauza gehiago haizatu zituzten. Atxilotuen zerrenda, gure aitaren argazkia, neurea...

### Hortik etorri zen antzezte hura.

Bai, nonbait! Josuk esaten du gauza idatzia hor gelditzen direla, betiko, baina

ikusteak indar handia duela, antzezteak errealitatea erakustea duela. Horrela egin zituzten omenaldia eta antzezpena. Hunkigarria izan zen. Kontatua zidatena ikusi nuen antzezpen hartan, nola tirokatu zuten guardia zibilek gure aita, nola joan zen herrestan kalezuloan aurrera Txoko tabernaraino eta hil zen han. Kontatua zidatena, alegia. Bestalde, urte askoan, hantxe, paretan ageri zen balak egindako zuloa. Txokoko nagusiak kontatzen zuen, Loli zenak. Hura bai, oroitzen zen.

### Bere begiez ikusi zuen?

Bai Lolik eta bai bere amak ikusi zuten, etxeko balkoitik. "Hor, Loli, haurra negarrez, eta gizona lurrean!", esan omen zion bere amak. Loli garbi oroitzen zen. Tiroak eta gero jende asko bildu zen, nonbait. "Zer gertatu da, bada?", batzuek, eta besteek: "Emilio hil dutela!". Horrelaxe. Lolik eta bere amak ikusitakoa kontatu zidaten. Gure amak, aldiz, ezer ez. Gure aita ehortzi egin behar zen, baina agintariek ez zuten gogo handirik. Alegia, ez hilkutxa eta ez besterik. Orduan, Jose Arregi zurgina etorri omen zen, hilkutxarekin, eta esan omen zion apaizari: "Gainerako guztiak bezala ehortziko



duzu, eta elizako kanpaiak ere joaraziko dituzu. Hileta izango da, egiazkoa".

### Biktimatzat duzu zeure burua?

Hein batean. Badakizu, orain biktima besterik ez dago bazterretan... Nik gogoan daukat gertatu zena, ez neure begiez ikusi nuelako, ez oroitzen naizelako

ere, baina gogoan daukat egun hartakoa. Josuk dio biktima batzuek ez dutela airtortzarik eta, nonbait, horietarik naiz ni. Gainera, egun hartan balaz zaurituak izan ziren, zenbait lagun atxilo hartu zituzten eta, handik bi urtera, 1936an, bi urte lehenago atxilo hartutako haiek zigortu egin zituzten. ●

# elhuyar

aldizkaria

**Ezagutza oparitu!**

**20 €**  
URTEAN

Hiru hilez behin, etxean bertan.  
Egunero, webgunean.

Zientzia eta teknologian gertatzen den  
guztia zure eskura!



<https://aldizkaria.elhuyar.eus>

Harpidetzak: 943 36 30 40





## Gezurra

**A**zaroaren 6ko goizaldean, mundu mailako gertaera ustekabeko bezain garrantzitsua gertatu zen. AEBetako hainbat telebistak artean presidente zen Donald Trumpen prentsaurrekoaren zuzeneko emisioa eten zuten, honek hauteskundeetan “lapurreta” egiten ari zirela frogarik gabe esan ostean.

“Trumpi eten egin behar diogu, presidenteak baieztapen faltsuak egin dituelako”, esan zuen zuzenean AEBetako telebistako hiru albistegi jarraituenetako baten aurkezleak. Hala ere, bere gezurrak ez ziren berriak: *The Washington Post* egunkariaren ikerketa baten arabera, kargua hartu zuenetik uztailaren 9ra arte, Etxe Zuriko maizterrak 20.055 gezur esan zituen.

Kate amerikarren erabakiak polemika piztu du komunikabideetako langileen artean, eta handikiaren kontrako jarrera politikoetatik ere neurria “zentsuratzat” jo dute. Ordu batzuk lehenago, Twitterrek bertan behera utzi zuen Trumpen 2016ko hauteskundeetarako kanpainako buru eta aholkulari politikoki ohi Steve Bannonen kontua, bi funtzionario federalen burua mozteko deia egin ostean.

Bannon eskuin muturreko liderren olatu berriaren eragilea izan da, munduko agenda politikoa markatzea lortu duten lider arrakastatsuen ideologoa: Bolsonarotik hasi eta Santiago Abascalerraino. Eta, besteak beste, plataforma

Gezurak esatea eta gorroto-diskurtsoak zabaltzea adierazpen askatasunerako eskubidearen babespean egon behar al da?

komunikatiboak eraikitzeari eta sare sozialak erabiltzeari esker egin du hori, *fake news* delakoak hedatuz eta iritzi publikoa manipulatu agintera heltzea edo bertan betiketzea helburu.

Puntu honetara iritsita, nire buruari galdetzen diot: gezurrak esatea eta gorroto-diskurtsoak zabaltzea adierazpen askatasunerako eskubidearen babespean egon behar al da? Izan ere, aste honetan bertan eta AEBetako lurrikararen itzalean, Espainiako Gobernuak sareak zainduko dituela eta desinformazio kanpaineri “erantzun politikoa” emango die-la iragarri du.

Planaren xehetasunak Desinformazioaren Aurkako Jarduketa Prozeduran kontsulta daitezke, Segurtasun Nazionalako Kontseiluak onartu duena eta BOEn argitaratuta dagoena. Presidentzia Ministerioaren aginduz. Azken finean, egin dutena da agindu ministerial batean sartzea Europar Batasunak gezurrei aurre egiteko luzatutako gomendioak. Bre-



DAVID BOU  
LA DIRECTA-KO KAZETARIA

xit-aren erreferendumerako kanpainak piztu zuen kezkaren harira egin zituen Bruselak gomendioak.

*Trifatxitoak* asaldatuta eta modu bateratuan erreaktionatu du, exekutiboari “Egiaren Ministerioa” sortu nahi izatea leporatuz, George Orwellen *1984* eleberrirako asmatutako fikziozko erakundea, historia berridazten eta faltsutzen zuena. Jakina, haiek badakite estrategia irabazlea dutela, eta ez dute etikarik edo eskrupulurik horri uko egiteko.

Aste osoa daramat gaiaren inguruan hausnartzen eta Voxen sare sozialak aztertzen. Alderdiak interneteko atari baten pantaila-irudia zabaldu du, non “Hussainek” ustez Bartzelonako erdialdean arpilatutako Decathlon batetik lapurtutako bizikleta bat saltzen omen zuen. Jendarte eta osasun larrialdian ezegonkortasuna sortzeko asmoz eskuin muturrak infiltratu zuen martxa baten ostean gertatu ziren istiluak, baina Voxek “adin txikiko atzerritarrei eta ezker muturrari” egotzi zizkien.

Ez daukat konponbiderik, baina bai konbentzimendua, tamainako erantzun bat koordinatzea ezinbestekoa dela. Ez badugu behintzat lau urte itxaroterik nahi komunikabide handiek emisioa mozten ausartu arte, ezin dutelako berriak sortzen lagundu duten muntstroa baretu. Trump ez da jada presidente izango, baina bere metodoak geratzeko etorri dira. ●


# Euskal mitologia oparoa (I)



MAIALEN  
BERASATEGI CATALÁN  
ITZULTZAILEA

**E**z oso aspaldiko partez berriz ere entzun dut azkenaldian, hedabide eta elkarrizketa batean baino gehiagotan, emakumeok ezin dugula “nire anaia” esan. Ez ziren esaten ari, kurioski, emakumeen klasekoak garen aldetik ezin dugula sentitu gizonen klasekoenganako kidesunetik eta mutueltasunetik: hitzaz ari ziren, “anaia” hitzaz. Baina kontua da euskara batu-batuan eta estandar-estandarrean eta erregistro guzti-guztietan esan dezakegula emakumeok “nire anaia”, eta ezin dela hori akastzat hartu, edo ez litzatekeela hartu behar behintzat. Nahitaez “neba” behar duela, hori euskararen inguruko mito sinpatiko horietako bat da, aditzak beti esaldiaren buztanean behar duela dioen mito supersinpatikoa bezalakoxea, edo “arמוש”, “karu”, “gugaz” eta “azul” euskara batua ez dirrela dioen mito onuragarri-onuragarria bezalakoxea, edo “kanbiatu”, “maskara”, “zirkunstantzia” eta “zeina” arbuia beharreko erdarakada zikinak direla dioen mito praktikiko-praktikoa bezalakoxea. Euskal mitologia, bistan denez, Mari, Tartalo eta laminak baino askoz ere gehiago da.

Baina halako mitoak ez dira sortzen alferrik eta beren kabuz. Halako usteak usteldu ez baizik mito bihur daitezen, denbora behar da, eta errepika, eta presio jakin batzuk, eta transmisio soziokulturalerako oztopo eta ezintasun nabarmenak ere bai. Eta aipatu berri ditudan mito horiek oso dira zaharrak,



PAULA ESTÉVEZ

dirudien baino zaharragoak, etsigarriro zaharrak esan nahi dut. 2008an, Beatriz Zabalondo irakasleak XX. mendean hasierako zenbait testu zinez esanguratsu ekarri zizkigun Berria Eskolaren inauguraziora, tartean ARGIA-ren egutegian 1923an argitaratutako hauxe (egungo grafiara transkribatu dut, inoren baimenik gabe): “Gaur den egunean, euskaraz behar bezala idazten ez da, ez, lan erraza; herriak egiten duen bezala idazten baduzu, aldamentik irri-barrez hasiko zaizkizu, hori ez dela euskara esanaz, lautik hiru erdarazko hitzak direla eta iseka edo burla eginaz. Garbi idazten hasten bazara, berriz, erdarazko hitzak alde batera utzi

eta lehenengo liburu zaharretan dauden hitzak erabiliaz eta berriak sortuaz, beste aldetik hasiko zaizkizu barrez eta burlaka, hori ez dela euskara, txinoa dela, ez duela inork aditzen, euskara berria dela eta horrelako beste gauza asko aurpegira esanaz”.

Horra 1923ko aiene bat, 2020koa dirudiena. Duela ehun urte ere jada mito ziren gure mito zaharrak. Hamarkadaz hamarkada josteta txit jostagarri bihurtu zaigu elkarri *garbizale*-ka eta *zikinzale*-ka aritzea, informatuxe batzuetan baina fits handirik jakin gabe beste batzuetan, errota berean bereizi gabe xehatuz euskalki kontuak, sukalki kontuak, erregistro kontuak eta auskalo zer beste ale. Inondik ere ez gara, inork etsialdi saihetsezin batean pentsa lezakeen bezala, jende-modu eskasa geurez; ez beste edozein jende-modu baino eskasagoa behintzat (to eta no kontsolamendua!). Baina zer garen baino inportanteagoa da askotan nola gauden, eta nola gauzkatzen. Eta egon, ez gaude normal. Normal dagoenak ez du hitzetik hortzera erabiltzen “normalizazio” hitza. Eta horrexegatik ez ditugu mito normalak. Eta horrexegatik ezin dugu geuretzat hartu normaltasun-itxurakerian ibiltzeko luxua, ezein esparrutan: ez agintariak, diglosia zer den ez balekite bezala euskararen zera ernegagarri horri ez ikusi eginez, ez eta gainerako herritarrok ere, norbere etxeko mitoak egia osoa eta bakarra balira bezala sine-tsiz eta sinetsaraziz. ●



DIEGO PALLÉS

## Ereserkirik perfektuena

**D**uela bost urte, Zeelanda Berriko gobernuak prozesu publikoa abiarazi zuen bandera diseinu berri bat hautatzeko asmoz, egungoak baino adostasun handiagoa sortuko lukeen diseinua. Baten batek esan lezake ez dela argudio asko behar hango bandera aldatzearen beharrez inor konbentzitzeko, bai sinbologiaren aldetik baita estetika-renetik ere. Bi erreferendum eta gero, ordea, parte-hartzaile gehienek bandera zaharrari eustea erabaki zuen, alegia, goiko bazter batean Erresuma Batuko banderaren irudi txikia txertatuta daukan banderari.

Nire ustez, pare bat ondorio atera dezakegu esperientzia hartatik. Lehenik, jardun zaila da adostasuna lor dezaketan sinbolo berriak sortzea, batez ere aldaketa politiko sakonik gertatu ez bada. Bigarrenik, ikur zaharrek karga sinboliko handia hartzen dute denboraren poderioz, nahiz eta beren jatorrizko sinbologiak talka egin gaur egungo gizartearen balioekin.

*Gernikako Arbola* abestia sortu zuteanean, Lehenengo Gerra Karlista ondoren, euskal gizartea asaldura politiko sakona pairatzen ari zen, eta, hortaz, beso zabalka bereganatu zuen foruen aldeko sinbolo musikal berria. Orain, 170 urte igaro eta gero, kantuaren mezuak baliopositiboak mantentzen litzake, bai, baina

inola ere ez milaka pertsonari aho batez kantarazteko moduan. Horren ordez, baina, kantuari ikur zaharraren balioa erantsi zaio, artefaktu tradiziozko, *vintage* bilakatu da. Gaur egun, beharbada, Euskal Herriarentzako ereserki aproposagoak, landuagoak sor genitzake, baina doinu berri horiek ez lirarteke inoiz izango XIX. mendeko abesti erromantiko bat, kanonak agindu bezala.

Nolako izango litzateke Euskal Herriko ereserkirik, banderarik, ikurrik perfektuena? Iragan mendeetan gutxiengoko pribilegiadunak lan erraza zuen sinbolo berriak elkarrekin adosten. Herriak eman zion ospea Iparragirrenen abestiari, bai, baina horren aurretik intelektual erromantiko gutxi batzuei zor diegu Gernikan dagoen haritza Euskal Herri osoko foruen sinbolo bihurtzea.

XXI. mendean, ordea, sinboloen egokitasunari buruzko eztabaidetan gizar-teko askoz sektore handiagoak parte hartzen du. Denon gustuko sinbolo berriei buruzko adostasuna lortzea arrazaila izaten da normalean, eta oinordetzan jasotakoarekin lan egin behar izaten dugu: ereserkiak, banderak, nazioen izenak... baita herrialdeen mugak ere. Politika, hein handi batean, duela 150 urte inguru gutxiengo batek erabakitako materialekin egitera behartuta gaude, paradigma errotik aldatu ezean. ●



UXUE APAOLAZA

## Ergelak

**T**rump kritikatzeko errazagoa zait, askoz, Bideni buruz ezer onik esatea baino. Baina txantxa iturria haren adina izatea, baita zalantza serioagoen iturburu ere, azpimarratzekoa irudituko zait. Munduko gizon boteretsuena esaten zitzaionaren postura heldu den gizon zuri diruduna txikitze modua, zaharra dela esatea da. *Ez al zegoen gazteagorik?* Bera ere kontziente da eta Kamala Harris gazte itxurakoa hartu du ondoan.

Bidenek ez nau kezkatzen, ez, adineriaren biktimitzat; baina bai zaharra izatea hain baliogabetzailatzat hartzeak. Pentsiodunak, protestan hasi zirenean, estampa maitagarri izateari utzi eta hiz-

ketan hasi ziren, eta gu entzuten. Ez nahikoa, eta koronabirusak txantxen irribarrea itsustu digu, mespretxu ergel hori hilgarria izan daitekeela ikusita.

Eta ergela diot, honetan ez beste diskriminazio guztietan berehala antzematen dudalako onuraduna nor den... *Haurtzarora itzultzen dira, haurrak bezalakoak dira* tratua; zertarako dirua gastatu gehiago esplotatu ezingo ditugun izakiek bizirik iraun dezaten... ez digu horrek guztiak guri eragingo zahartzen garenean? Baita lehenago ere? Ez denoi. Horregatik egon daiteke pozik Biden kritika bere adina bada, ez da ergela, berak salbazio indibidualerako baliabide guztiak dauzka. ●

# Festarik gabe, bizitza bera festa



**FERMIN ERBITI ZABALTZA**  
KAZETARIA

**N**oizbait lasterketaren batean parte hartu duten guztiek badakite: azkarregi abiatzea da akatsik larriena. Hori egiten duenak larrutik pagatuko du, helmugaraino heltzekotan leher eginda iritsiko baita, sufrikario izugarria pairatuta. Larrazken hasieran heldu zen pandemiaren bigarren olatuak irudi hori ekarri dit. Soziologian aditu izan gabe ere, begi bistakoa da: jendea akiturik dago, maratoian azkarregi hasita lur jota dabilen lasterkariaren antzera.

Bizitzak hortik gehiena badu ere, guk nekez onartzen dugu ziurgabetasuna. Eta orain horixe besterik ez dago. Hau noiz eta nola amaituko den, ideiarik ez. Ez guk eta ez inork. Hortaz, zalantza handiko garaia onartu eta kudeatzen saiatzea beste erremediorik ez dago. Eta, ahal dugun neurrian, kopetilun ibiltzeari utziz, horrek ere ez baitigu deus konponduko. Galdu dugunagatik negar egin beharrean, hobe dugunarekin gozatzen saiatzen bagara. Eutsi edo etsi, besterik ez dago.

Bide horretan laguntzarik behar? Pau Donés zenak eskaintzen digu,

Galdu dugunagatik  
negar egin beharrean,  
hobe dugunarekin  
gozatzen saiatzen  
bagara. Eutsi edo etsi,  
besterik ez dago

Hego Euskal Herriko zinema aretoetan (momentuz, bestelako agindurik ez dagoen bitartean) ikusgai dagoen film batean. Hiltzear zegoela, kantariak Jordi Évole kazetariari deitu eta azken elkarrizketa eman nahi zuela esan zion. *Eso que tú me das* (Zuk ematen didazun hori) da horren fruitua. Bi lagunen arteko azken solasaldia, sakon eta benetakoa. Kazetaritzatik zinematik baino gehiago duen pelikula zoragarria iruditu zitzaidan.

Évole meritu handiko kazetaria da, aurkezle lanetan estilo berri bezain

arrakastatsua sortu baitu. Punta-puntako aurkezle sasijakintsu harroputz horiengandik hain urrun, tipo normala dela ematen du: janzkeran, tonuan, galderak egiteko moduan. Besteari entzuten badaki, eta komunikaziorako funtsezkoa den isiltasunaz baliatzen ere.

Pau Donések harriturik utzi ninduen. Lehen planoan ikustean, batek Paveseren *Heriotzaren soa* gogoratzen du, Letek gurera hain dotore ekarritako poema izugarria. Hasierako uena besterik ez da. Ikusleak berehala ahanztiko du kantariaren aurpegi zargaldua, hain da sutua haren bizipoza eta ilusioa. Zukutu bizitza, merezi du eta! Horixe da pelikularen mezu nagusia.

Kontu ezaguna, esanen du batek baino gehiagok. Bai, ezaguna baina barneratu gabea. *Carpe diem*: heriotzaren begiak ikusi arte, nekez ikasten dugun lezioa. Harrigarria badirudi ere, oraingoa oso garai egokia izan daiteke horretan saiatzeko. Erronkak merezi du: festarik gabeko garai ilunean, bizitza bera festa bihurtzea. ●





*Mikel Antzak eta Adur Larreak  
Euskal Herriaren historiako  
gertaera erabakigarrienetako baten  
inguruan sortutako **ELEBERRI GRAFIKOA***

Burgos. 1970ko abendua.  
Epaile militar frankistek hamasei  
etakide epaitu behar dituzte.  
Horietako seirentzat heriotza-zigorra  
eskatu dute.  
Zer egin beraien bizitza salbatzeko?  
Nola jakinarazi munduari Euskal Herriak  
jasaten duen errepresioa?  
Baina ez hori bakarrik...

**GARA** rekin  
hilaren 28 eta 29an,  
larunbat eta igandean  
kioskoetan

**22€**

Harpidedunentzako  
eskaintza berezia: 20€\*

\* Erreserbatu zure alea igorri dizugun e-mailari erantzunez.  
Etxera eramango dizugu, bidalketa gasturik gabe.

**GARA**

## SORGIN EHIZA LAPURDIN ETA NAFARROAN

# Herri oso baten aurkako erasoa

Ezin zenbatu sorginen inguruan egindako liburu, film, erakusketa, hitzaldi eta *souvenir*rak Euskal Herrian. Baina gehienetan ohiko galderak baino ez dira iradokitzen, ea emakume horiek zer egiten zuten, ea benetan elkartzen ote ziren akelarrean, ea zer droga hartzen zuten, ea landarez eta ukenduz ba ote zekiten... Ipuin bat. Misterioz eta mandragoraz mozorrotuta. Baina zer dakigu ehunka eta ehunka euskal herritarren kontra bi inperiok abiatu zuten makineriaz eta bulkada politikoaz? Inkisizioaren tortura-geletako orruen gainean eraikitako kondaira baino biktimen memoria lantzeari ekin diote.

 AXIER LOPEZ  SHUKARE OTERO

**K**askora heldu, kaleketan barna abiatu eta nekez egingo diozu iskin sorginen munduari lotutako erreferentziei. “Akelarreak egiten zituzten” Sorginen Lezera edo Sorginen Museora heltzeko seinaleak dira edo amu turistiko usaina duten bes-telako deiak, frantsesez eta gaztelaniaz ez gutxi. Pentsa, herri honetako alkatetza “Akelarre” taldearena da. Milaka lagun hurbiltzen da urtero “sorginen herria” ezagutzera. Baita gu ere. Graxiana Sorginen Aterpeko tabernan lotu gara kafe bat hartzeko. Menu sorgindua, erratz eta akerburu artean. Eta galdetu diogu hutsik den tabernako langileari herriko paisaia lasaiaz. Iaz arte zazpi taberna zirela herrian diosku. Alegia, taberna bat 35 pertsonako. “Sorginen turismoak jende asko ekartzen du zonalde honetara, bai, eta hala jarrai dezala, bestela...”

Eta segituan datorkigu galdera. 46 etxe zituen herrian 32 lagun, egun batekik bestera, ehizatu, bahitu, leku arrotz batera eraman eta hizkuntza arrotz batean galdekatu, torturatu zituzten Inkisizioak zekien maneran, 220 biztanleen %15. Batzuk bizirik erre zituzten, gehienak presondegian hil ziren, beste batzuk deserriratu zituzten betiko eta denei ondasunak konfiskatu zituzten. Herri oso bat erditik hausteko baliatutako gezurretik sortutako mitoak eta askotariko aldaerak gaur egunera arte heldu dira. Nola ote da posible? 400

urte barru Altsasuko gazteei terrorista deitu eta haien karikaturekin oroigarri turistikoak salduko al dituzte Sakanan? Tira, turismoaren gurpil eroari zentzua bilatzea lan nekeza izan daiteke. Bada, goazen harira. Zugarramurdin gaude. 2020. urtean.

## IPUINETIK KONTZIENTZIARA

“Txikitan banekien gure herrian sorginak zirela, erre zituztela, baina ohiko azaleko kontuez aparte ezer ez. Etxean galdetu adinekoei eta inork ez zekien deus. Ez zen horretaz mintzo. Sorginen herrian bizi ginen. Kito. Hazi ahala, galderak sortzen zaizkizu”. Baina Helena Xurio Arburua zugarramurdiarrari – hainbat urtez Sorginen Museoko langile izandakoa– duela 30 bat urte Koro Irazoki historialariak egin zuen liburuxka batek pista berriak eman zizkion. “Gibeleko aldean, 1610ean kondenatuak izan ziren herritarren zerrenda zekarrren eta gaur egunera arte etxeak eta haren jabeak ez direnez aldatu, oraingo biztanleekin ordeztu nuen zigorturiko bakoitza. Telletxeko alaba, Barretxeko andrea eta bi alabak, Beheretxeko jaunna... Nola biziko genuen egun herrian horrelako sarraskia gertatuko balitz? Eta nola ez zaigu deus ere ailegatu? Autoestima suntsitu digute, eta gainera geure egin ditugu Inkisizioaren kontakizuna eta mitoak. Ez da kasualitatea. Ezin izan dugu gure historia kontatu”.



Esan eta egin. Xurio eta beste kide batzuk duela bi urte hasi ziren dokumentazio bilketarekin eta horren lehen emaitza da *Sugarren Mende* liburu grafikoa, Asisko Urmenetak ondu duena. Sorgin ehizaren aitzakipean Euskal Herrian egindako masakrearen bulkada politikoaz eztabaida piztu nahi dute. Nafarroako konkista osteko mendea hartu dute aztergai eta Zugarramurdiko kasuak eramaten du lanaren haria 100 urtez izan ziren sarekada guztien adibiderako. Epea 1513-1616: Inkisizioa Nafarroan ezarri zutenetik eta Zugarramurdiko hainbat herritarrek Logroñon epaitutakoen alde Urdazubin justizia eskatu zuten arte.

Erronkaritik Amekoaraino eta Lapurdiko txoko askotan klase eta adin guztietako euskal herritarren aurkako ehiza burutu zuten Frantziako eta Espainiako inperioek. Tragedia baten historia da. Ez da polita, sarri, akerraz eta orgiaz edertuta heldu bazaigu ere. Baina sorginen ipuinak sinesten ez baditugu, "erre zituzten herrikideak gerra biktimak izan ziren", dio Xuriok.

### **"DENA DA SORGINA" INKISIZIOAREN IZAERA POLITIKOA**

Inkisizioari lotutako ohiko klitxetik –fedearen purutasunaren defentsa– baino, haren izaera politikoaz gutxi ikertu dela diote Xuriok eta Urmenetak. "Espainiako Inkisizioak 22 tribunal diferente zituen, Siziliatik Mexikoraino. Espainiako Inperioaren kolonia izandako herrietan egun bestelako irakurketak egiten ari dira. Oso interesgarriak. Adibidez, nola Inkisizioa baliatu zuten mugimendu independentisten kontra egiteko, edo mulatoen iraultzak han-hemenka abiatzean. Nola Inkisizioa errepresioaren lehen lerroan izan zen edota portugaldarrak hasi zirelarik errebelatzen Espainiako Monarkiaren kontra, nola Inkisizioa izan zen lehenbiziko agentea".

Espainiako Koroak herria militarki konkistatu ostean, bere agindu politiko eta erlijiosoa ezartzeko Inkisizioak zuen ezinbesteko rola aztertzen dutela dio Urmenetak. "Prozesu hori bera Euskal Herrian gertatu bazen ere, hemen ez da ikuspegi hori landu. Nekez aurkituko duzu, esaterako, Mexikon inor aldarrikatuko duena haren arbasoak sorginak zirela".

Ikerketa horietako bat da Natalia Silva Prada historialari mexikarraren *Inkisizioaren aurkako jarrera, heresiaren adierazpen gisa*. Inkisizioaren izate politiko eta poliziakoa ez dela behar bezainbeste

ikertu dio lan horretan, eta hala, "Inkisizioaren eginkizuna azpibalaratzen da, baldin eta soilik Elizako auzitegi gisa aztertzen bada, bere iturburu politikoa alde batera utzita".

**“Hemen sorginik ez da! Baina bospasei orduko torturaldiaren ondotik, epaileak aitorrarazten die hala direla”**

**Faltzesko markesa, 1525**

Orazio Cancilak 2001ean Palermon egindako lan batean hala zioen: "Inkisizioa izan zen arras tresna eraginkorra kontrol politikorako, siziliar herriaren eta irlako instituzioen kontra". Eta ildo beretik mintzo da Portugalen Ana Isabel López-Salazar Codes irakaslea: "Ez da dudarik Inkisizioak kolaboratu zuela Espainiako Koroarekin disidentzia politiko oro akabatzeke". Portugaletik mugitu gabe, Carlos Fontesen *Espainiako Inkisizioaren biktima portugaldarrak* lanean ondorengo jaso du: "Espainiako Inkisizioak portugaldarren sarraskia eragin zuen. Benetako genozidio baten aurrean gaude, Portugalgo herriaren erresistentzia- eta biziraupen-ahalmena suntsitu nahi zuena".

**“Inkisizioaren zorroztasuna balia liteke beste hainbat delitu zigortzeko, bide arruntetik ez baitziratekeen epaitzen ahalko”**

**Leonardo Donato Veneziako Dux-a, 1573**

Euskal Herrira etorrita, sorgin ehizaren gaia gure testuinguruan landu duenetako bat Mikel Azurmendi antropologo donostiarra da. Monarka absolutistek boterea pilatu ahala, herriarekin esku gogorra erabiltzeko koartada berriak bilatzera

bultzatu zituela dio, Bidasoakoa bezalako mugen gainean kontrol zorrotza ezartzeko. "Muga hori eraikitzeko, lehenago herritarren irudimenean txertatu behar izan zuten: frantsesez eta espainolez hitz egiten ez zuen eta mugarik ikusten ez zuen biztanleria kikilduz. Ideia hori herritarren buruan txertatzeko zementua izan zen sorginkeriarren izenean egindako jazarpena", dio Azurmendik.

Ehundaka biktimen ezaugarriari erreparatuz gero, Wall Disneyren tankerako sorginen karrikatura, delako emazte zaharra maltzurretik oso bestelakoa zen inkisidoreek salatu zituzten pertsonen prototipoa. "Armadore aberatsak, apezak, nobleak, abokatuak, epaileak, arrantzaleak, ikazkinak... Euskal Herrian denetarikoa jendea zigortu zuten sorgin izatearen aitzakipean. Klase sozial guztietakoak, zahar, ume eta heldu, emakume eta gizon. Herri bat behar zuten disziplinatuta Bordeleko Parlamentuak Frantziari eta Inkisizioa Espainian", dio Helena Xuriok. Eta, "hara zer kasualitatea!", gaineratu du Urmenetak, "normahi izan zitekeen akusataturik, baina konkistatzaileen bandoan sorgin gutxi edo bakar bat ere ez".

### **ERRONKARITIK AMESKOARA, LAPURDITIK PASAZ**

Zugarramurdikoa da prozesurik modernoena eta aztarna handiena utzi duena, baina Nafarroan 1513an abiatu ziren Inkisizioaren lehenbiziko ehizak Erronkarin, Zaraitzun eta abarretan.

Sekta satanikoaren kontua lehen aldiz 1525ean agertu zela dio Urmenetak. Petri Balantza jaun beaumontar batek espedizioa antolatu zuen, Espainiako Erregeak aginduta, Aezkoa, Luzaide, Erronkari, Zaraitzu eskualde horretara Joan Albretekoa erregearen kontseilukide batzuen kontra. Orduan hasi zen masiboki epaitzen eta garbitzen. Sei bat hilabete eman zituen Nafarroako lur horietan Balantzak eta gero segidan jo zuen Garazi eta Oztibarrera, Nafarroa Beherera militarki beretzera. Balantzak herritar gehiagok hil zituen sorgintzat akusataturik, Logroñoako autofedeak –jendaurreko epaiak– baino. Hortik tiraka, Julio Caro Barojaren galdera ekarri dute gogora liburuan: "Erljioko gisa aurkeztu zaigun [sorgin ehizaren] afera honek ez ote du funts politikoa? Prozesaturiko gehienak Nafarroa independenteko errege-erreginen aldeko izaki?".

Orduz geroztik sorginkeria prozesuak bata bestearen ondotik etorri dira mende batez Nafarroako muga berri eta



geostrategiko horretan barrena. Hasi Erronkarin eta finitu Ameskoan. “Badira beste kasu batzuk lurralde horretatik kanpo, baina prozesu kolektiboak muga eratu berri horretan gertatu dira”. Hori ezaugarri garrantzitsua dela azpimarratu du Urmenetak.

Urte luze horietan jende saldoa izan zen epaitua, jazarria, torturatua, zigortua, deserriraturia, baita –oso kontzeptu modernotzat duguna ere– “bestaldera” ihes egina ere. Horren adibide da Elizaldeko emazte senperrara –izen osoa ez da dokumentazioetan agertzen, De Lancrek hori besterik idatzi zuelako–. De Lancreren hatzaparretatik Mutrikura ihes egin eta han harrapatu zuten epaile frantsesek Inkisizio espainiarraren laguntzarekin. Emakume aberatsa ei zenari bere ondasun guztiak bahitu zizkionten. Elkarlanean.

### ETSIAIAK ADISKIDETUTA INTERES KOMUNAREN BUELTRAN: HERRITARRAK OTZANTZEA

Xurio eta Urmenetaren iritziz, oso gutxi dago kontatuta Nafarroako eta Lapurdiko jazarpena momentu batetik aurrera koordinatua izan zela. Elkarri mokoka zirenak, adiskidetuta.

XVII. mende hasiera hartan, Frantziaren menpeko Lapurdin bi familia ziren elkarren etsai, gerra zibilak luzaz jasan ostean: urtubiatarak eta amutarrak. Lehenak kontrolatzen zuen Hendaiaetik Donibane Lohitzunerako eskualdea eta besteak Azkaine, Senpere eta inguruko herriak. Biak Frantziako Erregearen menpeko gizonak ziren eta biek problemak zituzten herritarrekin. Urmenetak azpimarratu duenez, “Urtubiako jaunari independizatu zitzaizkion Hendaia, Ziburua eta beste. Senpereko jaunari ere herritarrak oldartu zitzaizkion. Horregatik, une batez bi jauntxoak adiskidetu eta Frantziako erregeari eskatu zioten komisiio bat abiatzea, Lapurdin “sorgin asko” zegoelako.

Nafarroa Garaia Espainiako Inperioaren erpin bilakaturia, muga osoak garrantzi geostrategikoa bereganatu zuen. Kontrol horretan gakoa izan zen pertsona bat: Leon Aranibar, Urdazubiko abadiako burua eta Espainiako erregearen ordezkariaren espioi nagusia eskualdean. Bera izan zen Ainhoan zita berezia lotu zuena 1609ko abuztuaren 25ean. Solaskideak ondorengoak: Aranibar bera, Urtubia eta Senpereko jauntxoak, Bordeleko Parlamentuko buru Jean de Espagnet eta Logroñoeko Inkisi-

ziotik Juan del Valle Alvarado eta bere idazkaria, besteak beste. Mahai beraren bueltan elkar harturik, Lapurdin etsai zirenak eta elkarri mokoka ari ziren bi inperio. Zertarako? Koordinatzeko nola harrapatu bi suren artean herritarrak.

### ZUGARRAMURDI, 1580-1610

“Nik sorgin ehiza ez dut ikusten feminizidio gisa bakarrik, Euskal Herrian afera politiko handia izan zen”, azpimarratu du Helena Xuriok. “Bistan da, gaur bezala, orduko gizartea ere matxista eta patriarkala zenez, emakumezkoek or-

daindu genuen preziorik handiena. Gizon asko itsasoan zirela, emakumeen esku zeuden ardura asko eta beraz nolabaiteko boterea ere bai, baina ehizak ez zituzten egin emakumeen aurka soilik egiteko, baizik eta herri oso baten kontra. Soberan ginen haien hedapen inperialaren erdian”. Zugarramurdiko kasua horren adibide argia dela dio Xuriok. Inkisizioak prozesatu zituen gizon eta emakume gehienak “lider sozialak izatea” ez du kasualtatetzat hartzen.

Urdazubiko monastegia boteregune nagusia zen eskualdean, Zugarramur-



## Euskal Herria, bi munstro inperialisten erdi-erdian

**M**onarkia absolutuak sortzearekin batera, estatuen arteko mugak finkatzen hasi ziren. Baita Espainian eta Frantziaren ere. Hala, Nafarroa erresuma independente eta neutrala bi marrazoren arteko muga bilakatu zen. Ordurako, Nafarroako Erresumatik zati subirano bakarra geratzen zen: Nafarroa Beherea. Gainerakoak okupaturia zeuden.

Batetik, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa aspaldi konkistatuak izan ziren. Bestetik, hiru mendez Ingalaterrako parte izan ostean, Frantziak gerraren bidez okupatu zituen Lapurdi eta Zuberoa. Handik gutxira Bordeleko Parlamentua ezarri zuten, handik kontrolatzen zituzten lapurtarrak eta zuberotarrak. Eta azkenik, 1512an Nafarroa Garaia inbaditu, okupatu eta soberaniarik gabeko erregeorderri bilakarazi zuten.

Fernando Katolikoak Nafarroa konkistatu eta gero Inkisizioa ekarri zuen 1513an, baina nafarrak independentziaren alde altxatu ziren bakoitzean eraso egin zioten tribunalarari. Tuterako kasua esanguratsua da. 1521ean erresuma tarte batez askatzen denean, Inkisizioaren jauregiaren kontra jo zuten matxinoek, paper guztiak Ebrora bota, preso guztiak askatu eta inkisidoreak harrikatu zituzten. Beraz, Iruñetik Lizarrara, gero Tuterara, handik Calahorrara eta azkenik Logroñora mugitu zuten Inkisizioa. Hor epaitu zituzten Gaztelaren menpeko euskaldun guztiak.

Logroñotik orduko ZEN plana bideratu zuten Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaientzat. Lapurdiko *razziak* Bordeleketik bideratu zituzten, Pierre De Lancre famatua buru.

di zen haren parte eta menpeko. “Jendeak sekulako zergak ordaindu behar zizkion abadeari, Leon Aranibarri, lurra lantzeagatik, olak, errotak eta abarrak erabiltzeagatik. Zugarramurdiarrak gogaitu ziren, altxatu eta 1580ko otsailaren 18an Etxeberriko plazan batzarra antolatu zuten helburu argi batekin: Zugarramurdi independizatu eta herriko etxe bilakatzea”. Hala adostu zuten eta erabakiari sinbolismoa emateko sagarrondoak landatu zuten plaza hartan. Herri batzar eratzaile horretan zeinek parte hartu zuen oso ondo dokumentatuta dagoela dio Xurik. Horregatik, “niretzat sekulakoa izan zen jakitea, batzar horretan parte hartu zutenak 30 urte geroago, 1610ean, Inkisizioak prozesatutakoan artean zeudela. Agerikoa da zeren arabera osatu zuten biktimen zerrenda”.

Sekulako desmasia egin zuten herrian. 220 biztanle inguru, gaur egunen antzera. Horietarik 32 lagun Logroñora eramana izan ziren, ez oraingo maneretan gainera, leku arrotz batera bahituak. Orduan ez zen atxilotze baimenik edo agindurik.

Mikel Azurmendik horrela deskribatu zuen talka hori *Las Brujas de Zugarramurdi* 2013ko liburuan: “Komu-

nikazioaren ikuspegitik, tribunalaren eta akusatuen artean zegoen distantzia parekagarria da europar konkistatzailearen eta amerikar indioen arteko kontaktuari”.

“***Ez naiz menturatzen etxetik ateratzera, ez entzutearren herritar xeheen ahuenak eta kexak, eta etxean egonik ere, hastiaturik naukate***”

Leon Aranibar, 1616

Tortura saio luzeen ostean, “Akelarreko erregina” izatearen akusazioa ukatzen hil zen 85 urteko Graziana Barrenetxea Logroñoko presondegian. Haren alaba Maria eta Estebania bezalaxe. Mikael Goiburua “Akelarreko Erregeak” eta 84 urteko Martin Bizkar “Akelarreko Haurren Alkatetzak” izandako patu

bera. Zugarramurdiko biktima hauek dira ehunka eta ehunka euskal herritarren izenez jositako zerrendaren parte, gaur egunean osatu gabe dagoena.

### **ZAURIAREN GAINEAN, ISILTASUNA ETA FEDEA**

40 urte zituen Maria Etxelekuk eta 37 Estebania Petrisantzenak inkisizioaren borrarroek ehizatu, torturatu eta haren ondasunak bahitu zizkietenean. Biak hil ziren Logroñoko presondegian. Baina, hilda egonda ere, Inkisizioaren zigorra betearazi zuten: haien hezurak erre zituzten. Historian arrastorik ez geratzeko asmo irmoa zutela dirudi, hezurren memoria bera ere gera ez zedin. Isiltasuna.

Behin sorginkeria prozesu guztiak finituta, gaiak gehiago ez mintzatzea izan zen agindua. “Horretarako Inkisizioak 1614an ediktua zabaldu zuen aginduz, gai hau ez zela aipatzen ahal”, dio Xurik. 1616ko urtarrilaren 20an sugarretatik libratu ziren 26 zugarramurdiar, emakumezkoak gehienak, Urdazubiko monastegira joan ziren haien lagun eta senideengatik galdetzera eta haien errugabetasuna erreklamatzera, bortxa eta mehatxuen biktima izan zirelako. Gaur egun, memoriaren aldeko taldeek



Azaroaren 7an Zugarramurdi omenaldia egin zieten 1610eko egun berean Inkisizioak zigortu zituen 31 herrikideei, bakoitzaren etxe atarian lore sorta bana jarri. Ekitaldia Etxeberri aurreko plazan egin zuten, 1580an herria independente bilakatzeko herri batzarra egin zen leku berean. Orduan egin bezala, omenaldian sagarrondo bat landatu zuten. Inkisizioak 30 urte geroago hil zituzten artean batzar horretan parte hartu zuten herritarrek zeuden nagusiki.

Sugarren mende liburuak Lapurdin kaltetuak izan diren herriko etxe gehienek babesa lortu du eta Erronkaritik Amezkoarainoko udal gehienek proiektuarekin bat egin dute. Pandemia tarteko, herri bakoitzean aurkezpenak egin eta materiala biltzen jarraituko dute gai honetan oraindik osatugabea den memoria historikoa berreskuratzeko asmoz. Liburuak Gure Berriak webgunean eskuratu daitezke.

darabiltzaten egia, justizia eta errepara-zioaren bidetik. Aranibar abade inkisidorearen erantzuna oso esanguratsua izan zen: isiltasuna. “Zuen amak, amaxiak, aitak, alabak, anaiak, nehor ez da historian izango. Ez da gaiaz hitz egiterik, zigorraren pean. Isiltasuna eta izua, gorputzari kolatua”, azpimarratu du Xuriok.

Agian horrela hobeto ulertzen da Pedro Agerre Axular modukoaren isiltasuna. Garai hartako Urdazubiko semea, herrikideak bahitzen ikusi zituenak ez zuen deus ere idatzi horretaz, ezta aipu txiki bat ere ez euskal literaturaren aldrean den *Gero* liburuan, 1643an argitaratutakoa. Baina, aldiz, ondorengo bai: “Etsaiek egiten derauzkiguten atsekabeak, Iainkoaren eskutik heldi direla, hark permititzen dituela, haren purgak direla. Etsaiak Iainkoaren iustiziaren muthilak eta borrhoroak dira. Beraz ez kara heken kontra haserretu behar”. Tormentu orokorraren ostean, izua gauza ulergarria da.

**“Hiruzpalau mila eta gehiago susmagarri sorginkeriagatik (Nafarroan hasteko) gelditu dira horren bare eta isil, ezen sinestezina ere baitirudi, pizturiko sua errotik iraungirik, sekula izan ez balitz bezala”**

**Alonso de Salazar Frias, 1617**

Inkisiidoreen lana amaituta, beste tropa mota batzuk bidali zituzten herrietara: predikariak. Herri bat erditik hautsita, elkarbizitza birrindua, mesfidantza herritarren artean zabaldua zegoenean, fede eta dogma eramaileak bidali zituzten, gehien bat frantziskotarrak. Mikel Azurmendiren hitzetan, helburu argi batekin: “Baltasmoa ematera”.

### ETENDAKO TRANSMISIOARI EUTSI

De Lancrek dokumentazioa ezabatzen zorrotz aritu zen eta Logroñoeko Inkisiziotik, aldiz, zenbait biktimaren testigantza hitzez hitz jasota heldu dira gaurdaino. Horietako bat

*Sugarren Mende* liburuan jaso dute, Maria Johan Anozibarrenena. Nahiago zuela gorputza galdu eta ez salatu errugabea zioen behin eta berriz, tortura gogortu bitartean. “Nik ez dut inozenterik salatuko’ errepikatzen zuen, hori ikaragarria da. Nola ez zaigu hori iritsi?”, dio Xuriok. “Nik orain argi dut, sufrimendu hori ez bazaigu hitzez transmititua izan, historian barrena sekulako jazarpena bizi izan dugulakotz da”.

**“Hobe da sorginen ekintza higuigarriak ezabatzea eta isilaraztea jendaurrean publiko egitea baino”**

**Pierre de Lancre, 1627**

“Lekukotasunetan behin eta berriz agertzen da ‘ni ez naiz sorgina’ edo ‘ez dakit zer den sorgina izatea’. Asko hil egin ziren leporatutakoa ukatzen”, gaineratu du Urmenetak. “Ez dezagun guk geure egin asmatutako ipuin hori, arbasoek behin eta berriz ukatzen zutena”.

Kasu askotan, ospakizunen eta kondairen zentro bilakatu dira sorgina edo akelarrea. Halere, sorgin hitza ez dutela hiztegitik ezabatu nahi dio Helena Xuriok: “Lotura du mitologia, emakume belar-biltzaileak, emaginekin... baina Inkisizioak emandako ikuspegia ezabarazi behar dugu. Ez zituzten horren arabera erre. Kontzientzia hartu behar dugu, asumitu gertatutakoaren gogorra, Disneyren ipuin bat nahi baduzu, ez etorri Zugarramurdirat”.

Sorginkeria, masoneria, komunismoa, terrorismoa, sezesionismoa... aldiandiko botereak, txikle baten antzera luzatu eta nahieran erabilitako delituak dira munduan barrena. Herritarrak masiboki kriminalizatze eta zigortze oso eraginkorrak izan dira eta haien aplikazioa bereziki oldarkorra izan da erresistentzia erakutsi duten herrietan. Euskal Herria ez da horren salbu izan, ‘*Tribunal de orden público*’ eta Espainiako Auzitegi Nazionalak baldintzatutako historia hurbila lekuko. XXI. mende honetan ere ez dago zertan raperoa izan jakiteko epaitegi bereziek asmatutako diskurtsoen barruan ez dela egia osoa sartzen. Orain dela 400 urte bezalaxe. ●



**Benetako antzinako ogia**

© 943 450 966  
Ubarburu pasealekua, 113  
Astigarraga (Gipuzkoa)

**DATU PERTSONALEN BABESA  
EUROPAKO ARAUTEGIA**

Zure enpresa egokitzen lagunduko dizugu



**SIGACUS**

© 943 453 588 · www.sigacus.com



**tradebi@tradebi.com**

**Ogiaren egia**



**Galparsoro OKINDEGIA**

Ogi biologikoa  
Harri errotan xehetutako Irinarekin egindako ogiak  
Orantza ogiak

Kale Nagusia 6 (Aldi Zaharra) - DONOSTIA - Tel.: 943 421 074



**Aitak Irungo CAFen egiten zuen lan. Nola gogoratzten duzu?**

Nire gurasoak Alegian jaio ziren, elkarrekin hasi zirenean aitak 28 urte zituen eta amak 18 baino ez. Aita hainbat enpresatan ibili zen eta oso sartuta zegoen orduko borroka sindikaletan. Ama ere lanean hasi berria zen. Baina borroka horien ondorioz bailarako lantegietan betoa jarri zieten eta azkenean Irunera etorri ziren bizitzera, 1973an. Aitarenean lehen kontratua CAFekin 1974koa da. Enpresari oso lotuta bizi izan gara egunerokoan, soziki ere bai, Gabonetako opariak horako jostailu azokan erosten genituen eta guzti! Konpromiso eta inplikazio handia izan zuen aitak CAFekin, enpresa batzordean sartuta, beti sindikalismoan...

“ Bagoiak soldatzen zituenean hauts bat ateratzen zela zioen, eguzkitan ikusten zen hauts hori. Enpresako medikuari esaten zion: ‘Zerbait ari gara tragatzen eta ez duzue kontutan hartzen!’”

1982an, tarte batez Beasaingo lantegian hasi zen, Alegiatik gertuago, baina ordurako jadanik hasita zegoen sukar eta ezinegonekin, eta lan mota oso fisikoa zenez, berriz eskatu zuen Irunera itzultzea. Hemen jarraitu zuen 1999an laneko ezintasuna eman zioten arte.

**Gaixotzen hasi zela esan duzu, hasiera batean zer esan zioten?**

Hasieran ez zuen diagnostikorik. Enpresako medikuaren lehen txostenetan jartzen du “jatorri ezezaguneko sukar-sintomak” zirela. Aurrerago pneumoniek hasi zen eta 1990ean, azterketa bat egin ondoren, Biriketako Gaixotasun Butxatzaile Kronikoa (BGBK) diagnostikatu zioten. CAFen amiantoari loturiko

# “CAFen aitortza morala eskatzen dugu, aitagatik eta etorriko diren amiantoaren biktima guztiengatik”

**Otsanda Tolosa Urbieta**



Aita, Celestino Tolosa, 2008an hil zitzaion amiantoarekin lan egiteagatik, urte batzuk geroago bere birika izoztuetan aurkituriko asbestoak erakutsi duenez. Azken bi urteetan borroka luzea eraman du Otsanda Tolosak auzitegietan, amarekin batera, CAFen erantzukizuna frogatu nahian. Duela hilabete epaileak arrazoi eman die azkenean, baina CAFeko abokatuek helegitea jarri diote sententziari. ARGIArekin sakon eta garbi hitz egin du: “Aurpegia eman eta egindako mina aitortzea besterik ez dugu nahi”. Barkamen eskaera hori entzun gabe hil da, ordea, Kontxi Urbieta ama.

 URKO APAOLAZA AVILA  DANI BLANCO

kasuak gerora atera dira, orduan ez genuen horren kontzientziarik.

## **Biktima gehienek diote oso gaitz gogorra eta luzea dela. Zure aitarena ere horrela izan zen?**

Sukar agerraldiak oso maiz izaten zituen eta arnasa hartzeko zailtasuna ekartzen zion horrek. Egunak eta egunak pasatzen zituen ohetik atera gabe; gehienetan ospitalean amaitzen zuen. Azken boladetan etxean geratzen zen oxigenoarekin eta beste tratamendu mota batzuekin. Gogoan dut behin Txingudi ikastolan nengoela gertatutakoa, 12-13 urte izango nituen. Atletismoa egiten nuen eta urtero Arcachonera joaten ginen kros lasterketa batera, astebu-

ru pasa. Igandean guraso guztiak etorri behar ziren autobusez, Irundik, gu ikustera. Baina aita ez zen autobus hartatik jaitsi, ohean geratu behar izan zuen. Ez dut inoiz ahaztuko.

## **Sarritan gaixoa jartzen dugu arreta, baina ingurukoengan ere eragin nabarmena izan du amiantoak.**

Amari erabat baldintzatu zion bikotekide bizimodua, euren bizitza asko murriztu zen. Niri berriz, txikitatik heldutasun handia eman zidan aitaren ospitalerazteak bizitzea. Familia Goierrri aldean genuen eta Irunen ama eta biok bakarrik geunden: ospitaleko txandak egiten, medikuekin hitz egiten... bizitza erabat aldatzen dizu. Sufrimendu asko dago.

## **Ondoan norbait izatea garrantzitsua da ezta? Zure ama Kontxiren figuraz ari naiz.**

Aita hil zenean ama nuen ondoan, berak jarri zuen indar guztia. Orain, ama falta zaidala, oso desberdina da, asko nabaritu dut.

## **Aitari biririkak transplantatu zizkieten eta bereak zientziarako eman zituen. Zeren susmoa zuen?**

2006an oso gaizki zegoen jadanik, 24 ordu behar zituen oxigenoterapiarekin. Orduan pneumologoek proposatzen digute azken aukera bat: biririkak transplantatzeko hautagaien itxaron zerrandan sartzea. 62 urte ditu eta adinez mugan dago, baina balorazioa egin eta

Santanderko Valdecilla ospitalean operatzen dute, urte horretako uztailean.

Berak beti esaten zuen sukarrek zerikusia zutela fabrikan zurrupatutako zerbaitekin. Soldatzailea zen eta Irungo plantan bagoiak konpontzen zituen. Bagoiak soldatzen zituenean hauts bat ateratzen zela zioen; tailerrak goialdean haizagailuak zituen eta eguzkiak ematen zuenean ikusten zuen hauts hori. Ez zuen esaten amiantoa zenik, ez dakit garai horretan ba ote zekiten amiantoarekin lanean ari zirenik ere. Enpresako medikuari esaten zion “zerbait ari gara tragatzen eta ez duzue kontutan hartzen”.

### Medikuari abisatu zion orduan?

Bai, susmoa bazuen. Baina enpresako medikuek asko estaltzen zuten garai horretan. Gainera, aitari EPOC (BGBK) diagnostikatu zioten eta horrekin nahikoa zuten.

“Epaiketetan aita errudun egitera jo dute, gaixotasuna berak sortu izan balu bezala”

### 2008an hil ondoren, aitaren heriotza ulertzeko erantzun baten bila hasi zineten?

Hasieran ez. Ni bi haur txikirekin, ama lur jota... doluak asko irauten du. Ez genuen ezer egin bizpahiru urtean, ez geunden horretarako. Baina CAFen gero eta kasu gehiago hasten dira ateratzen amiantoarekin zerikusia izan dezaketenak. Auzoan jende asko hurbiltzen zitzaigun: “Ez duzue inoiz begiratu zuen kasua ere ote den?”, esaten ziguten. Orduan, aitaren sekzioko lankideak ere hiltzen hasi ziren, enkargatua bera, eta azkenean, ingurukoek hainbestetan esan ondoren, gauzak begiratzen hasteko indarra hartu nuen. Baina jadanik 2015 urte ingurua zen eta esperantza gutxi genuen ezer argitzeko, mediku-historian ez genuen ezer topatzen.

**Santanderko ospitaletik e-posta bidezko mezua jasotzen duzun arte.** Webgunean ikusi nuen pneumologia-ko ekipoa nire aita tratatu zuten medikuak zeudela oraindik. Denei bida-



li nien mezu bera eta haietako batek erantzun zidan esanez uste zuela aitarren birikak laborategian zeudela. Harri eta zur geratu nintzen. Ez genekien, eta aitaren zati bat gure artean genuela sentitu nuen, hainbeste urte eta gero. Analisia egin eta ondorioztatu zuten birikak amiantoz josita zeudela, ez zegoela inongo zalantzarik.

### Birika izoztu horiek krimen baten froga direla dirudi. Zer sentitu zenuten heriotzaren atzean amiantoa zegoela baieztatzean?

Poza sentitu genuen, aita arrazoi zuela erakutsi genezakeelako, argi izpi moduko bat zen. Pentsatu genuen, “orain bai, has dezakegu guda hau”.

### Auzitegi-tako guda, biktima gehienek igaro behar izaten duten gurutze-bidea, bi aldiz biktima izateraino.

Lehenik aita bizi izan zuena, eta gero, nahiz eta bera ez egon, guk jasan behar izan duguna enpresak hartutako jarre-ragatik. Izugarria da. Ezin da azaldu zein

sentimendu dauden, nolako mina emateko gai diren. Epaiketetan aita errudun egitera jo dute, gaixotasuna berak sortu izan balu bezala; txostenen batean agertzen da “erretzaile-ohia” zela, eta horri heldu diote, nahiz eta urte asko izan utzi zuela. Epaiketak oso gogorrak izan dira, euren burua errugabetzeko eraso egin dute.

### Beste kasu batzuetan bezala, salatzailea bihurtzen da epaitua.

Lehenengo epaiketa 2018ko maiatzean izan zen. Hasieran beste aldarte batekin zaude: izutzen nuen zer leporatzen zioten aitari eta pentsatzen nuen, “baina hauek zer?”. Denbora pasa ahala, ordea, indarra gutxitzen joaten da. Beraien estrategia da. Hasieran Donostia-ko auzitegiak ez zuen gure froga onartu, baina helegitea jarri genuen eta EAE-ko Auzitegi Nagusiak arrazoi eman zigun. Orduan, CAFek azken momentuan Madrilera jo zuen, eta han Espainiako Auzitegi Gorenak berretsi zuen aita amiantoagatik hil zela, laneko gaixotasun batengatik.

**Azken pausoa izan da erakustea CAFek ez zuela langilea babestu eta indemnizazioa eskatu duzue. Irailaren 4an izan zen epaiketa, zer gertatu zen egun horretan?**

Egun horretan Donostiako epaitegi kanpoaldean elkarretaratzea egiten da, jende eta ezagun pila batekin, Asviamie elkartekoak, CAFeko langileak... oso babestuta sentitu izan gara beti. COVID-19aren kontuagatik abokatu eta testiguarekin soilik sartu gaitezke barrura. Amak ezin du etxetik atera, alboko esklerosi amiotrofikoaren (AEA) ondorioz fisikoki gaizki dagoelako. Baina buruz oso kontziente dago, eta hitza galduta duen arren, zeinuen eta komunikazio alternatibo baten bidez ulertzen dugu elkar; adi egoteko esaten diot, edo zertarako deituko diodala.

“ Amarentzat oso inportantea zen epaia, bizitza lasai amaitzeko, hortik hamar egunera hil da. Baina beti zioen barkamena eskatu beharko luketela”

Sartzen gara barrura eta gure abokatuari CAFekoek mugikorrera deitzen diote, 4. solairura igotzeko, badirudi negoziatu nahi dutela. Ni bakarrik geratzen naiz pasilloan. Hortik denbora batera abokatuak azaltzen dit: “Orainxe erabaki behar duzu diru hau hartu ala ez. Baietz erabakiz gero, hurrengo

egunean zure kontu korrontean izango duzu, baina baldintza da komunikabideetan ezin duzula hitz egin, ezin duzula ezer aipatu”. Nik garbi dut zer egin, baina amari deitzen diot, bera gabe ezingo nuke hartu erabaki hori. Ezetz erantzuten dugu, ez dagoela negoziatzerik, gu ez gaituztela isilduko. Hau guztia ez genuen hasi diruagatik, gure borroka beste bat da: CAFek benetan errekonozitzea eragindako kaltea, ez aitagatik bakarrik, atzetik etorriko diren beste guztiengatik ere bai. Orduan, enpresako abokatuek azken proposamen bat egiten digute: %10 gehiago eskaintzen digute.

**Ez zuten ezer ulertu?**

Epaiketan berriz saiatu ziren aita errudun jotzen erretzailea izan zelako. Epai-leak esan zuen bazegoela sententzia irmo bat lehenagotik horren inguruan, eta galdetu zien ea zer zen nahi zutena: indemnizazioa %50 jaistea eskatu zuten. Baina epaia gure aldekoa izan da eta dagokigunaren %100 kobratu behar dugula dio. Hori da orain CAFek errekurritu duena.

**Lehen aipatu duzu ez dela diru kontua, baina zertan lagundu dezake zigor ekonomiko batek?**

Hasi ginenean, guretzat garrantzitsuenaren zen demostratzea aita amiantoarekin kutsatu eta horregatik gaixotu zela. Gero, behin argi pixka bat lortuta, bide hori beste biktimei ere zabalik utzi nahi diezu: enpresak egindako mina aitortzea eta aurpegia ematea, esatea “asko sentitzen dugu gertatu dena”, ez dugu besterik eskatzen. Ekonomikoa? Hori balore huts bat da, 10 edo 20 izan, horrek ez du inporta, aitortza moralala da guretzat inportanteena. Baina CAFen baloreen artean dirudienez momen-

tuz ez da halakorik sartzen. Epai-leak esaten duena esanda ere, CAF enpresa erreferentea da Euskal Herrian, Eusko Jaurlaritzaren diru laguntzak jasotzen ditu, nazioartean indar handia dauka eta Euskadiren izena eramaten du hemendik kanpora. Horregatik, balore bartzuen pean egon behar lukeela iruditzen zait, baina aldiz, erakusten ari da zein zikin jokatzeko duen. Niri arraroa egiten zait, adibidez, momentu honetan errekurtsioa jartzea, aitaren kasua hain argia izanik... zer itxura ematen duen ezta? Amorrua ematen du, zikloa itxi eta barkatu egin nahi dituzulako.

**Horretarako lehenik barkamena eskatu beharko dute... zure ama hori entzun gabe hil da.**

Beretzat oso inportantea zen epaia, bizitza lasai amaitzeko, hortik hamar egunera hil zen. Sinetsi nahi nuke deskantsu bat hartu zuela, epaile batek arrazoi eman diola jakinda. Hala ere, bere diskurtsoan beti zioen barkamena eskatu beharko luketela, baina ez zuen halakorik entzun, hil baino lehen CAFen errekurtsioaren berri izan zuen.

**Zuen kasua nahiko ezaguna izan da, zer aurreikusten duzu hemendik aurrera?**

Gogorra izan da bide judiziala, baina gauza onekin geratzen naiz. Aitari argitasuna ematea lortu dugu, bere kasua erreferente bat da beste biktimeentzat, eta elkartasun handia jaso dugu. Hemendik aurrera zer? Errekurtsioarekin gertatzen denaren zain. Nekatuta nago eta ixteko gogoarekin. Aita duela 12 urte hil zen eta dolua amaitzeko garaia iritsi da. Noski, beti egongo naiz prest inork laguntza behar badu, baina beste toki batetik, deskantsua behar dugu, ea uzten diguten. ●

**EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN KONTRAKO EGUNA** Día internacional contra la violencia hacia las mujeres

**NOVIEMBRE 25 azaroak**

Hernaniko Udala e3 berdintasun kontseilua

**DENON ARDURA DELAKO!**



*“ Kataluniako presoen kasuan ez dugu indultua ez den bertze agertokirik ulertzen ”*

JAUME ASENS



Abokatua, aktibista soziala eta Espainiako Kongresuko diputatua da Jaume Asens (Bartzelona, 1972). Urtarrilaz geroztik, Pablo Iglesias ordezkatu du Unidas Podemos talde parlamentario konfederalaren presidentetzan. Abokatu gisa, giza eskubideen eta mugimendu sozialen defentsak markatutako ibilbidea du, eta, Kataluniaren eta Espainiaren arteko gatazka politikoaren ebazpenaren figura erabakigarrietako bat da gaur egun. ARGIArekin solastatu da, "aldaketaren gobernuaren" aukera eta zailtasunen inguruan.

 SAIOA BALEZTEN A  JORDI BORRÀS

### **2015ean egin zenuen salto politikara, Bartzelonako udal hauteskundeetan lehendabizi eta Espainiako Kongresuan, gero. Nola daramazu?**

Arrazoimenez ezkorra naiz eta borondatez baikorra. Horregatik, ilusioz bizitu dut, beti ere, ekintza politikoaren mugekin kontziente izanik. Adorno filosofoak erraten zuen arrazoimenaren gaixotasuna betidanik izan dela mugekin kontzientzia galtzea. Hori ahortzi gabe, nire belaunaldi politikoari tokatu zaio salbuespenezko garai bat bizitzea: Espainiako Estatuaren osotasunean aukera berri bat zabaldu zen eta aprobetxatu beharra zegoen. Errepublikaren garaitik, sekula ez du gobernurako sarbiderik izan PSOEn ezkerrean dagoen indar politiko batek, Unidas Podemos-ek edo En Comú-k.

### **Ez da urte xamurra izan. Gobernua osatzeko arazoan ondotik, ados jarri eta hilabete gutxira, mundu mailako pandemia iritsi zen.**

Noski, antzekorik ez genuen sekula ikusi. Pandemiak eragindako testuinguru horri aurre egiteko ezinbertzekoa izan

da gizarte ezkutua altxatzea, eta horretan, gure ekarpena erabakigarria izan da. Hala ere, argi dago estatuaren ikusmolde tradizionalari lotutako hainbat osagai ukiezin daudela oraindik.

### **Adibidez?**

Monarkia. Gure ekimen guztiek PSOEren ezezkoarekin talka egin dute eta zaila da aurrera egitea. Edo, Kataluniari dagokionez, elkarrizketaren agendaren bitartez alderdi popularraren konfrontazioa bukatu da, baina, oraindik ere, espetxeratuak aske utzi gabe. Lan anitz dugu egiteko eta galtzeko denbora gutxi.

### **Monarkia aipatzen duzula, 16 hedabide independenteren egitasmoak egin du CIS Espainiako Ikerketa Soziologikoetako Zentroak azken bost urte hauetan barneratu nahi izan ez duen galdera. Zer deritoxozu?**

Hasteko, CISak hedabide independente horien egitasmoaren adibidea hartu eta, bistan denez, gizartearentzat interesekoa den galdera hori barneratu beharko luke. Horretaz aparte, ezinbertzekoa iruditzen zait errege-etxea fiskalizatu eta monarkiaren ustezko delituak arakatzera bideratuta dauden ikerketa denek aurrera egin ahal izatea. PSOEek oraingoz gure proposamen guztiak blokeatu dituen arren, gure erronka eustea da eta gobernu bazkideekin hagitz pedagogikoak izatea, geuretzat zentzuzkoa dena batu arte.

Monarkiaren inkestari onena erreferenduma da, ziur nago iritsiko dela, baina, alde aurretik, gehiago behar dugu.

### **"Espainiako Gobernurik aurrerakoienean" sartu zineten, gauzak aldatzeko asmoz. Zenbateraino da egingarria zuen erronka?**

Katalunian elkarrizketaren bidea dugu, errepresioaren kontra aurreratzen ari gara indultuen eta sedizio delituaren erreformaren bitartez, monarkia eztabaida betean dago, aurrekaririk gabeko baliabideen mobilizazioa egon da pandemian atzean inor ez gelditzeko, frankismoaren biktimekin bat egiten duen oroimen historikoaren legea dugu... Aurrera egiten ari gara testuinguru hagitz zaillean, eskuin erabat desleial batek go-

bernua eraisteko bere beso judiziala erabiltzen ari den bitartean. Baina bigurutzeko unean gaudela erranen nuke: irtenbide progresista bat egon daiteke inbestidurako blokean oinarrituz, edo PSOEk bipartidismoaren birmoldatzearekin amestu dezake, Podemos eta independentistak gobernagarritasunetik kanporatu nahi dituen Ciudadanosen laguntzarekin. Horregatik da hain garrantzitsua PSOE euren gaitasuna ez biratzea. Edonork jakin beharko luke zer dagoen jokoan!

### **Zuen hauteskunde konpromisoen artean zegoen preso dauden buruzagi independentisten indultuak tramitatzea.**

### **Badirudi bide hori martxan dela.**

Larrialdi demokratikoa eta immoralitatea da pertsona baketsu hauek espetxean jarraitzea, are gehiago, urriaren 1eko Polizia operatibo doilorraren erantzuleek euren inpunitatea galdu ez duten bitartean. Indultuaren formak zentzua du auzitegiaren dauden bidegabekeriak erreparatzeko. Legeak jasotzen du, erabilgarritasun publiko, ekitate edo proportzionaltasunean oinarrituz, epai baten zigorraren zorrotasuna leuntzea. Eta iraganen egin den zeharkako zentzuan ez bezala, espetxeratutako independentisten kasuan indultua egokia da. Batez ere, bortxaketa edo homizidioetako kasuetan baino espetxe zigor gogorragoak dituztela kontuan hartuta. Katalunian dena izan zen baketsua.

“

**Monarkiaren inguruko inkestari onena erreferenduma da”**

### **Bide hori bermatuz gero, noiz egongo dira aske Kataluniako politikari espetxeratuak?**

Indultua tramite administratibo erabat arautua da. Gobernuak ez du bertzeko aukerarik, tramitera onartu eta ebaztea bertzerik, alde edo kontra.

Lantzen ari garen egutegiaren arabera, epea 3 eta 5 hilabete bitartekoa da. Hainbat txosten behar da eta, azkenik, Ministroen Kontseiluak erabakiko du indultua eman ala ez. Guk ez dugu indultuak ematea ez den bertzeko agertorik ulertzen.

### **Politikari espetxeratuak aske uzteko bideak hiru dira gaur gaurkoz: indultua, amnistia eta zigor-kodearen erreforma.**



### Lehendabizikoarekin aski izanen da?

Guk argi utzi dugu beti: helburua askatasuna da eta elkarrizketa eraginkorra izanen da presoak aske daudenean bakarrik. Hori horrela, ez dago biderik gainontzekoekin bateraezina denik. Testuinguru horretan, guk dioguna da, oraingo indar korrelazioan eta bideragarritasun juridikoan oinarrituz, zigor-kodearen erreforma eta indultuaren konbinazioa dela biderik eraginkorrena, espexteratu zein erbesterauei mesede egiten die, gainera.

### Baina, zenbateraino da bideragarria zigor-kodearen erreforma?

Sekula baino egingarriagoa da orain, azkenik, PSOEek onartu duelako. Guk maximoen posizioa babesten dugu, alegia, sedizio delitua zigor-kodean indargabetzea, baina prest gaude mota penalaren erreformaren inguruan hitz egiteko, hor baldin badago kongresuaren gehien-go. Erreforma honen bitartez helburu bikoitza asetzen dugu: batetik, espexteratuak aske gelditzea eta, bertzetik, manifestatzeko askatasuna blindatzea, etorkizunean halako bidegabekeriarik ez errepikatze inoren kontra, independentista, grebalaria edo Hipotekek Kaltetuen Plataformaren aktibista izan.

**Zuen proposamena hasieran sedizio delitua erabat ezabatzea zen, aldiz.** Noski, 200 urte baino gehiago ditu,

zaharkituta dago eta ez dagoelako gure inguruko ordenamendu juridikoetan homologatuta. Hori bai, pragmatiko izan behar dugu. Erreformaren bitartez, matxinada armatua barneratuz eta delitua mantenduz, PSOEek errazago onartuko du. Eta noski, urriaren 1ean halakorik ez zen gertatu.

### Amnistia aldiz ez duzu bideragarria ikusten. Zergatik?

Desiragarria da baina nekez da bideragarria. Kontuan hartu behar da, amnistia legean azken hitza Auzitegi Konstituzionalak duela eta, oraintxe, epaileen gehien-go kontserbadorea dela. Horregatik iruditzen zait ezinezkoa bide horrek aurrea egitea. Ez hori bakarrik, kontsentsu politikorik ez dago amnistiaren inguruan, beraz, ez du batzen. Amnistia, iraganean, lanabes erabilgarria izan zen gaur egun falta den kontsentsu handiko testuinguruetan aurrera egiteko.

**Procésaren sententzian Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia erabakigarria izan da. Zuk diozu alderdi popularrak lubakitu duela erakunde hori, Auzitegi Gorenaren aldaketa blokeatu eta epaileak kontrolatuz. Zergatik?**

PPk kupula judizialaren txoko nabarmen guztiak okupatu nahi ditu, hori delako orain euren Espainiaz duten ikuspegi kontserbadorea babesteko modu bakarra. Baina jarrera hori konstituzioaren kontrako atentatu larria da, erakunde ohiko funtzionamendua eragozten du, ordena konstituzionalaren subertsioa da, eta erakunde konstituzionalen egiturak ez berritzeak zilegitasun demokratikoaren printzipioa urratzen du, gainera. Funtsezkoa da kongresuak Botere Judizialarekin gertatzen ari den honetan esku hartzea eta eskatzea erakunde kolpismoa amaitzea.

### Bitartean, Gorenko epaileek Quim Torra inhabilitatu dute. Abokatu gisa, zer deritzozu erabakiaz?

Abokatu gisa galdetzen badidazu, aitortuko dizut politikaren judizializazio garai honetako kapitularik zentzugabeena dela hau. Sententzia burugabekeria da. Legealdiak izan zezakeen bukaerarik okerrera da. Are gehiago, kontuan izanik, politika berriz ere baliagarria izateko ahaleginak egiten ari garela, PPren politikaren judizializazioaren legatua atzean uzteko.

### Kataluniak hitzordu berria du hautestontziekin otsailaren 14an. Ekainaren 12ko hauteskundeetan Podemos Galizian desagertu eta Euskal Herrian hondoratu zen. Berdina gertatuko ote da Katalunian?

“

**Funtsezkoa da Euskal Herrian nagusi den bizikidetza eskuinaren eraso doilorrez blindatzea”**

Testuinguru desberdinak direla erranen nuke, baina noski, Galizia eta Euskadiko emaitzak bi ohar-tarazpen garrantzitsu dira. Katalunia alferrikako bide orri baten porrota digeritzen ari da oraindik, eta aldaketa behar handia dago. Hauteskunde hauetan osagai gako bat dago gainera, aurrekaririk gabeko osasun eta ekonomia krisiarekin zerikusia duena. Zalantzarik gabe, karpainaren ardatz garrantzitsua izango dira krisi honetatik ateratzeko batzuen eta bertzeen proposamenak, eta, bertze hauteskunde batzuetan ez bezala, ardatz nazionala presente egonen den arren, ez da garrantzitsuena izanen. Afera sozialak sekula izan ez duen lehentasuna hartuko du. Eta, noski, are gehiago, hauteskundeetara iristen bagara buruzagi independentistak aske izanik...

### Zer deritzozu Espainiako Gorteetako hemizikloan eskuinak egiten duen ETaren erabileraz?

Penagarria da biktimen eta euren minaz egiten duten erabilera. Badirudi, batzuek faltan dutela banda armatu baten existentzia, euren gorroto diskurtsoari eusteko. Izugarri sentitzen dut, bertze garai batekoak diruditen diskurtsoak entzuten ditugulako oraindik. Funtsezkoa iruditzen zait Euskal Herrian nagusi den bizikidetzaren giroa eskuinaren eraso doilorretatik blindatzea. Ezker abertzaleak egin duen indarkeriaren errefus esplizituaren bitartez, ETarena barne, agertoki berria sortu da. Aspaldidanik ezabatu behar ziren milaka euskaldunen eskubideak baldintzatu dituzten salbuespenezko hainbat neurri, horietako anitz NBEak berak arbuiatu dituenak. Adibidez, legegintza penal arrunta berreskuratu beharra dago eta presoan sakabanaketa politika amaitu, diskriminatzailea izateaz haratago, familiak kriminalizatzen dituelako.


**ETaren mamua presente dago. Adibidez, Altsasuko gazteen zigorretan. Abokatu bezala, zer deritzozu auzi honetaz?**  
Bidegabekeria da. Posible dudan

guztietan nire elkartasuna agertzen diet eurei eta haien familiei. Ostatu bateko liskarra dena, Nafarroan epaitu behar zen, eta azkenean terrorismotzat jotzen Auzitegi Nazionalean. Gero, inolako oinarririk ez zuen terrorismoaren auzia desmuntatu ahal izan da, baina, epaia erabat neurrigabea izan da. *Procés*arekin berdina gertatu zen: matxinada akusazioa koartada zen bi helburu asetzeko erabilgarria zelako. Batetik, politikarien inhabilitazio prebentiboa lortzeko, eta bertetik, legeak lehenetsitako epailea saihesteko, fiskaltzatik erran

zen bezala, ez baitzuten epaiketa Bartzelonan egitea nahi. Alegia, *procés*aren eta Altsasuko gazteen auziak Madrilera eramane zituzten kontrol hobea izateko. Deriba horren auzi nabarmena izan da Tamara Carrascoren

kasua: hasieran terrorismo eta matxinadagatik epaitu zuten. Eta azkenik absolbitu dute, gertakariak Bartzelonan epaitu direlako. Agerian dago hainbat ekintza erabiltzen ari direla indarkeria dagoela babesten duen kontakizuna sendotzeko. ETaren indarkeria desagertu da, baina haren aurka erabilitako ereduak bere horretan jarraitzen du. ●

“  
**Elkarrizketa eraginkorra izanena da presoak aske daudenean bakarrik**”



## Amurrioko Udala

Juan Urrutia plaza z/g  
01470 AMURRIO  
Tel.: 945 89 11 61  
Faxa: 945 89 16 45  
amurrio@amurrio.eus  
www.amurrio.eus



## AHOZKOTASUNA IKASTETXEETAN

# Pandemian herdoildutako mihiak olioztatzen


Milaka ume jokoz kanpo gelditu dira hilabeteotan. Ikastetxea zuten euskara arnasteko gune bakarra eta egun batetik bestera etxeratu zituzten birusaren agerpenaren ondorioz. Euskararik ez etxean, ez aisialdian, ez inon. Ikastetxeak segituan konturatu ziren haien ikasleen mihiak euskaraz aritzeko freskotasuna galduko zutela. Orain, galdutakoa berreskuratzeko ahaleginean ari dira. Donostiako Altza BHI, Durangoko Landako eta Iruñeko Jaso ikastetxeetako egitasmoak ezagutu ditugu.

 ONINTZA IRURETA AZKUNE  
 DANI BLANCO

**D**onostian gaude, Altza auzoko BHI Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta batxillerreko eskolan. Maialen Ezkerra zuzendariarekin eta Aitor Arrizabalaga hizkuntza normalizazio arduradunarekin geratu gara. Zuzendariak ikasturte honetan abian jarri duten egitasmoa ikustera eraman gaitu. Ikasgelan sartu gara, eta DBHko hamar bat gazte bakoitza bere mahaian, batetik bestera birus-tartea dutela, irakasleari begira daude. Irakaslea ari da hizketan, baina segituan bukatu du, galdera bat baino ez du luzatu. Hasi da hizketan ikasle bat, gero beste bat, eta beste bat.

12tik 18 urtera arteko ikasle guztiek asteen behin euskara ikasgaiaren orduan mintzamina landuko dute, helburua hitz eta pitz aritzea da. Hogei ikasleko gela bitan banatzen dute: erdiek mintzamina eta beste erdiek euskara ikasgaia. Horretarako, jakina, irakasle gehiago behar dira. Oso modu antolatuan ez bada ere, baliabide gehixeago dute orain horrelako gauzak egiteko. Altza BHIIn azken bi ikasturteetan irakasle baliabideetan izan duten dantza esanguratsua da: 2019-2020rako, Hezkuntza Beharren Indizea kontuan hartuta, bi irakasle-ordu gehiago lortu zituzten. Joan den uztailen, 2020-2021 ikasturtean bi irakasle gutxiago izango zituztela iragarri zieten. Hala ere, gelak bitan zatitu eta mintzamina lantzeko egitasmoarekin hastea erabaki zuten. Ikasturtea hasi eta gero bi irakasle eka-ri dizkiete.

**HIZKETAN.** Horixe da saioaren helburua, ikasleak euskaraz berriketan aritzea, zernahi dela ere gaia. Argazkiko ikasleak Donostiako Altza BHI ikastetxeetako dira. Asteen behin euskara ikasgaia eman beharrean mintzapraktika egiten dute.



Ikastetxera doazen gaztetxoek %90-95 testuinguru erdaldunetan bizi da eta gurasoak ere erdaldunak dituzte. Eskola ez da auzoaren isla zehatza, auzoan, proportzioan, guraso euskaldunak askoz gehiago dira. Eskolako gaztetxoentzat euskara arrotza da, gaztelania ohiko hizkuntza. Martxotik ekainera oso gutxi landu dute ahozkoa, eskola orduetan sarean egin ahal izan duten apurra, eta uda osoan ezere ere ez. Hainbat hilabetez ez dute euskararen beharrik izan. Arrizabalagak honela deskribatu du euskaraz duten gaitasunaren eta hizkuntzarekiko jarreraren arteko uztarke- ta: “Euskararen beharra sentitu behar dute, baina ohikoa ez da hala gertatzea. Gure institutuan gustuz eta gogoz erdaraz egiten dute. Guk aritzera behartzen ditugu, hizkuntza lantzen dute, gaiatasuna dutenean lasaia sentitzen dira, eta horrela ateratzen duzu gustua”.



Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak Euskal Giroitze Barnetegiak kendu izana zer iruditzen zaien galdetu diegu eta Arrizabalagak hala erantzun digu: “Oso erabilgarriak dira, bekatua egin dute. Gure ikasleek *arigune*-ak behar dituzte. Orain daukaten *arigune* bakarra da irakaslea ikasgelan, eta ez da nahikoa”. *Arigune*-ak Euskaraldiaren aurtengo berrikuntza dira. Euskaraz aritzeko gune babestuak dira, kideen artean hala adostutakoak. Institutuan halako bat sortzeko gogoz daude Arrizabalaga eta Ezkerra, herdoila astintzeko bi gauza behar baitituzte gazteek: haien buruengan konfiantza eta aritzeko lekua.

### **GALDUTAKOIA BERRESKURATUKO DUTE BALDIN ETA BALIABIDEAK JARTZEN BADIRA**

Zigor Ibarzabal Ikastolen Elkarteko hezkuntza arduraduna da. Aurrez aurreko

eskolarik gabeko hilabeteek eta ondoren udako etenak erabileran ikasle denei ez diela berdin eragin azpimarratu du. Geleraren faktoreak askotarikoak izan dai-

---

**Jaso ikastolan beldur ziren ea itxialdiko herdoilaren ondoren, ekainean, haien haurrak gai izango ote ziren hizkera ez formalean, pantaila bidez, solasaldiak izateko**

---

tezke, dio Ibarzabalek, baina bere ustez, argi adierazi daiteke testuinguru hurbilean euskaraz aritzeko ezintasuna izan

duten ikasleak izan direla gehien pairatu dutenak, eta egoera horretan ikasle asko daude. Itxialdian familia giroa gakoetako bat izan dela azpimarratu du, baina ez bakarria: “Etxean euskaraz aritzen ez den pertsona batek bere inguruan euskaraz jarduteko aukera asko izan ditzake, izan bere lagun taldean euskaraz jarduten dutelako, izan euskaraz irakurtzeko joera handia duelako, izan euskarazko kultur eskaintza kontsumitzen duelako...”

Eskola orduetan eta eskola orduetatik kanpo interakzio gutxi izan dute ikasleen artean, eta helduek bezala haiek ere, aisialdia beste modu batez antolatu dute: “Telebista, sare sozialak eta internet izan dira momentu horiek betetzeko erabili ditugun baliabideak eta testuinguru horietan euskarazko ekoizpen eta erreferente gutxi ditugu. Ondorioz, gazteleraz kontsumitzera jotzen dugu”.

Itxialdia hasi eta laster hezkuntzako

## IRUÑERRIAN PANTAILA BIDEZKO

## SOLASALDIAK DITUZTE



**D**indaia Fundazioak, Iruñeko Udalaren eskutik, Hitz eta Pitz egitasmoa antolatzen zuen pandemia hasi baino lehen. Eskolaz kanpoko jarduerak ziren, aurrez aurrekoak. Iruñeko eta Iruñerriko 23 ikastetxek hartzen zuten parte, denak D eredukoak. Ikastetxearen eta orientatzailearen bidez euskararekin zailtasunak zituztenak aukeratzen zituzten. Euskara maila hobetzeko esku-hartzek ziren, baina eskola orduz kanpo eta aisialdi giroan. Jolasen bidez.

Hori guztia erori da, eskolaz kanpoko jarduerak ezin dira egin Nafarroan. Dindaiak urtean 4.000 haur hartzen zituen eta 120 begirale kontratatu. Udalekuean 800 haur hartzen zituzten, aurtan ez da ia udalekurik egin. Esther Lakasta Fundazioko arduradunetako bat da. Haren ustez, eskolaz kanpoko jarduerak kentzeak izugarritzko hutsunea utzi du: "Haur gehienek ez dakarte euskara etxetik, eskolan D ereduari dira hezkuntza formalean, eta eremu informalean euskara ez darabilte. Eskolaz kanpoko jarduerak ziren euskaraz aisialdian aritzeko aukera bakarra".

Iruñeko Udalak uda aurretik egindako solasaldi telematikoen egitasmoa berriz jarri du abian azaroa-abenduan. Lehen Ebete enpresak kudeatutakoa, orain Dindaia Fundazioak landuko du. Iruñeko eta Iruñerriko D ereduko ikastetxe guztiak izan dute aukera haien gurasoen artean egitasmoaren berri emateko. 254 haur ari dira saioetan parte hartzen. Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako haurrak ari dira, 45 minutuko solasaldiak dituzte astean behin. Seiko taldeak osatu dituzte eta dinamizatzailea dute. Etxetik eta arratsaldetan egiten dute, hau da, eskolako orduetatik kanpo.

Ez da euskararen erabilera bultzatzeko modurik onena, baina Lakastak aitortzen du zerbait egin behar dela: "Hizkuntza arrakalaz hitz egiten da gaur egun, bada horixe gertatuko da. Denek ez daukate aukera bera euskara ondoan izateko. Askok martxotik daude aisialdian euskarazko giroa izan gabe, itxialdian ez, udan ez, eta azarora arte ere ez."

eta euskalgintzako eragileek ohartarazi zuten balizko ondorioez. Ibarzabali galdetu diogu ea erabilera izandako galera berreskurazina den. Berak dio berreskuratzeko modukoa dela, baina ez dela egun batetik bestera berreskuratzeko, ezta era automatikoa ere: "Baliabideak eta estrategia zehatzak behar dira horretarako, lehenik ere arazoak genituen euskararen erabilerekin eta hizkuntzaren zuzentasunarekin eta horretan inbertsio estrategikoak egin behar genituela behin baino gehigotan aipatu dugu".

Galdera bera egin diogu Iñaki Eizmendiri. Sentsazioa du ondorioak hain larriak ez direla izango, baina gaiari astindua eman behar zaiola argi du. Eizmendik kudeatzen duen Ebete enpresak euskararen erabilera sustatzeko baliabideak eta tresnak eskaintzen ditu. Eizmendik esperientzia handia dauka ikastetxeetako irakasle, ikasle eta gurasoekin. Hilabeteetako geldialdiak bi ondoriotan erreparatzen dira eraman du. Batetik, ikaskideen artean euskaraz egitea zailagoa egingo zaie, udan ez direlako euskaraz aritu edo ikaskideekin egon direnean (aurrez aurre, interneten edo sare sozialetan) gaztelaniaz aritu direlako. Ikasturtea hasi eta hizkuntza aldatu behar dute eta ohiturak aldatzea ez da batere erraza izaten. Bigarren ondorioa jarreraren antzemango dela uste du Eizmendik. Gazteek halako zerbait esan dezakete: "Orain euskaraz hasi behar dut? Ederki egon naiz bada hilabete hauetan!". Jarrera hori ez dela traumatikoa izango uste du, baina pixka bat sumatuko dela.

Pandemia aurretik ere ikasleen erabilera areagotzeko baliatzen zituzten metodoak kontatu nahi izan dizkigu: "Gauza berak kontatuko dizkizut, baina orain larritasun handiagoa dugu horretan indarra jartzeko". Bi gako dira oinarritzeko bere ustez: irakaslearen jarrera eta ahozkoari lekua egitea ikasgelan. Irakasle berriaren figura azaltzen die irakasleei ikastetxeetara doanean: "Irakasle guztiak mezu oso antzekoekin eta modu koordinatuan aritu behar dute. Irakasleekin duten harremanak izan behar du lehenengo arnasmunea, irakasleekin ezin die utzi irakasleek haiei erdaraz egiten. Etxea eta kalea ez bada, gutxienez irakasleekin duten harremanak izan beharko du arnas-

gunea". Ahozkoari lekua egin behar zaiola dioenean ikastetxeetan hizketarako egoera babestuak sortzeaz eta prozedurak zaintzeaz ari da. Artikulu honetan azaldu ditugun Altzakoa eta Durangokoa dira adibide: talde txikiak egin eta denak eroso aritzeko giroa sortu.

## NAIARA SAN ANTON

LANDAKO ESKOLAKO

IKASKETA BURUA

**"Gaitasuna garrantzitsua da, baina euskaraz bizitzea nahi baduzu prest egon behar duzu, eta lotura bat izan behar duzu hizkuntzarekin. Gaztelaniaz esaten zen *la letra con sangre entra*. Bada ez, horrela ez"**



## LOTSATIENTZAT ERE BAI

Durangoko Landako eskolan Altzakoan bezalatsu gertatu zaie. Hezkuntza Saitetik jardunaldi oso eta hereneko irakasle-orduak eman dizkiete. IKTetarako eta euskara indartzeko ziren baliabideok. 3 urtetik 12 urtera arteko haurrak jasotzen dituzten eskolan ez dute zalantzarik egin, ordu guztiak euskararentzat izango ziren. Amara Berri hezkuntza sistema dute ikastetxean eta irakasleek ohituta zeuden egunerokoan antzerkia egiten edo telebista eta irratiak ipuinak, olerkiak, albisteak ematen; ahozkoatasuna lantzen, alegia. Naiara San Anton ikastetxeko ikasketa buruak esaldi bakarrean laburtu du itxialdian gertatutakoa: "Ahozkoatasuna *meet*-etara [sare bidezko solasaldietara] mugatu zen, eta familien ardurapera". Bazekiten ahozkoatasunak kalte handia jasango zuela, eta ez dio euskarari bakarririk eragin, gaztelanian eta ingelesean ere antzeman dute irakasleek ezina. Dena den, euskararen galerak kezkatu ditu bereziki.

Orain antzerki, telebista eta irrati kontuak berreskuratu dituzte, baina horrez gain Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasle guztiak astero ahoz-kotasun saioa izaten dute. Lehen Hezkuntzan, gelako ikasleak bi taldetan banatu eta erdiak euskara ikasgaia ematen du eta beste erdiak ahoz-kotasuna. San Antonek garrantzi handia ematen dio talde txikiak izateari, hala denak derri-gortuta daude hizketan egitera, nahiz eta batzuk lotsatu, eta beste batzuek beti aurrea hartu. Saioak Ebete enpresak eskaintako jarraibideen arabera egiten dituzte. Jolasaren bidez solasaldiak izaten dituzte. Zuzendariak dio bi aldeak irabazten ateratzen direla: irakasleek lortzen dute ikasleak euskaraz aritzea eta umek ondo pasatzen dute. San Antonek Altzako irakaslearen oso antzeko hausnarketa egin du hizkuntza gaitasunari eta bizipenei dagokienez: "Gaitasuna garrantzitsua da, baina euskaraz bizitzea nahi baduzu prest egon behar duzu, eta lotura bat izan behar duzu hizkuntzarekin. Gaztelaniaz esaten zen *la letra con sangre entra*. Bada ez, horrela ez". Landakoko ikasleen gehienak ere euskara eskolarekin lotzen du, ahaleginarekin, eta ahoz-kotasuna lantzeko saioetan ikasleak gozatzen ikus-teak bestelako ikuspegia zabaltzen die irakasleei.

### ASTEBETEKO ESPERIMENTU ARRAKASTATSUA

Denboran atzera egin eta ekainera itzuliko gara. Iruñeko Udalak Ebete enpresarekin batera euskararen erabilera bultzatzeko egitasmoa eskaini zien hiriburuan diren D ereduko ikastetxeei. Jaso Ikastolari oso interesgarria iruditu zitzaion proposamena eta haienera egokitzeo aukera zegoen galdetu zuten.

Baiezkoa jasota, haien erara moldatu zuten egitasmoa. Ekaina bukaeran, aste-betez eta egunero ahoz-kotasun saioa izango zuten Lehen Hezkuntzako 3. mailako ikasle guztiak. Bost laguneko taldeak dinamizatzailer batek bideratu zituen. Eskola orduetan egin zuten, eta jakina, etxeko ordenadorearen pantailari begira. LH3 aukeratu zuten talde handiak zituztelako eta itxialdian oso zaila egin zitzaielako haien euskararen erabilera erreparatzea.

### AITOR ARRIZABALAGA

ALTZA BHIKO HIZKUNTZA  
NORMALIZAZIO ARDURADUNA

**"Euskal Girotze Barnetegiak  
oso erabilgarriak dira,  
bekatua egin dute kenduta.  
Gure ikasleek arigune-ak  
behar dituzte. Orain  
daukaten arigune bakarra  
da irakaslea ikasgelan, eta  
ez da nahikoa"**



Idoia Illarramendi zuzendariak oso balorazio ona egin du, haurrentzat zoragarria izan zen, taldean jardun zuten eta arlo curricularrak besteko zerbaitetan ari ziren. Illarramendik testuinguruan kokatu nahi izan du egitasmoa: "Ekaina bukaera zen, itxialdian geunden, arlo curricularrak ez zeukan lehentasunik". Altzako eta Durango-

ko adibideetan bezala, jolas girorako prestatutako solasaldiak ziren egitasmoaren ardatz, eta irakasleak beldur ziren ea itxialdiko herdoilaren ondorioz haien haurrak zenbateraino gai izango ziren hizkera ez formalean aritzeko. Begiraleek bestelako panorama aurkitu zuten: umeak gogoz konektatzen ziren saiora eta ez ziren isiltzen. Eta beste behin gaitasunaz eta motibazioaz egin-dako hausnarketa entzun du kazetariak: "Hor konturatzen zara zein eragin duen motibazioak euskaraz aritzeko momentuan. Euskaraz aritzeko gaitasuna bai, baina batez ere elkarrekin eta gustura arituko diren espazioak aurkitu behar dira".

Jaso Ikastolako haurrak, ikastetxetik kanpo, ingurune erdaldunean bizi dira. Familian ere asko gaztelaniaz ari dira, nahiz eta jarrera euskararen oso aldekoa izan eta ikasleak euskaraz aritzeko motibatu. Horregatik dio Illarramendik ikastolan euskararekin zerikusia duen ezer ez dagoela soberan. Ekaineko esperimentuaren hain balorazio ona eginda, zuzendariak argi du baliabideak izango balituzte horrelako egitasmoak behin eta berriz martxan jarriko lituzketela: "Jakina, aurrez aurre egoteak gauzak izugarri errazten ditu, baina berriz nahi ez dugun egoera horretara iritsiko bagina, Iruñeko Udalaren laguntzarekin edo gabe, halako saioak sistematizatzen saiatuko ginatke".

Hilabeteetan galdutakoa berreskuratzeo asmoz, hainbat ikastetxe baliabideak ahoz-kotasunera bideratzen hasi da, lehen egiten ari zirenez gain. Bestalde, sareari begira daude, eta beste behin esku hutsik ez harrapatzeo planak prestatzen ari dira, pantailatik pantailarako hoztasunean aritzeko bada ere. ●

365 egunez

euskaraz  
bizi

nahi dut





# Legezko abortuak 100 urte



NAGORE  
IRAZUSTABARRENA  
URANGA

Sobietar Batasuna, 1920ko azaroaren 18a. Sobieten Gobernu Zentralak abortua legeztatze deketua onartu zuen, historian lehenengoz. Handik aurrera, librea izateaz gain, doakoa ere izango zen. Urte batzuetan behintzat.

Dekretuaren bultzatzaile nagusia Aleksandra Kollontai (1872-1952) izan zen, sobietar gobernuan kargua lortu zuen lehenengo emakumea eta, une horretan, bakarra. Abortuaz gain, soldata partekatzearen edo dibortzioaren aldeko neurriak bultzatu zituen. Eta bere eragina ez zen soilik exekutiboa izan. Bere idatzietan emakumeen eskubideen eta, zehazki, legezko abortuaren aldeko oinarri teorikoa ezarri zuen, nagusiki *Emakume berria* eta *Maitasuna gizarte komunistan* lanetan. Lehen Mundu Gerraren ondorengo giroa, aldiz, aldeko eta kontrako faktore izan zen. Batetik, gerrak eta krisi ekonomikoak eraginda Errusia zaharreko biztanleria 7 milioi lagun gutxiagokoa zen, populazioaren hazkundearen aurkako neurritzat jo zitekeen abortua. Baina, bestetik, gerrak emakume askok fabriketan lan egitea eragin zuen, antolatzen hasi ziren eta indar politikoa hartu zuten horrela. Gainera Kollontai eta abortua legeztatzearen aldekoek zioten, legeztatu ala ez, emakume askok berdin abortatuko zutelara, ordura arte modu klandestinoan egiten zuten moduan. Sobietar gobernuaren neurriek eragina izan ahala, egoera ekonomikoa hobetuko zela uste zuten eta horrek abortuen eskaera murriztuko



GEORGE GRANTHAM BAIN COLLECTION

EZKERREAN, EGUNKARIA ESKUETAN, ALEKSANDRA KOLLONTAI, DUELA 100 URTE ABORTUA LEHENENGOZ LEGEZTATU ZUEN DEKRETUAREN BULTZATZAILE TEORIKO ETA PRAKTIKO NAGUSIA.

zuela, gutxi gorabehera emakumeen erdiek haurra hazteko baliabide nahikoak ez izateagatik abortatzen baitzuten. Gainera, abortua legeztatuta, ebakuntzak modu seguruagoan egingo ziren eta abortugile klandestinoek haien osasunaren kaltetan aberasteari utziko zioten.

Halaxe dio dekretuaren pasarte batek: "Azken 10 urtetan abortatzen duten emakumeen kopurua hazten ari da gure herrialdean eta munduan. Herrialde guztietako legeek gaitz horren aurka egiten du, abortatzea erabakitzen duten emakumeak eta abortuak egiten dituzten medikuak zigortuz. Horrek ez dakar emaitza positiborik. Ebakuntza klandestinitatera bultzatzen du, eta emakumeak abortugile zeken eta maiz ezjakinen biktima bihurtzen ditu".

Stalinen agintaldian, 1922tik aurrera, Kollontai korrante disidente batekin egin zuen bat. Itxuraz, beste mugarri bat jarri zuen: lehen emakumezko enbaxadorea izango zen. Praktikan, defenestratu eta erbesteratu egin zuten; beste kide batzuk baino modu "leunagoan" baztertu zuten behintzat. Eta Stalinekin bertan behera utziko zuen abortuaren dekretua ere; kasu "larrietan" soilik izango zen legezkoa abortatzea.

100 urte geroago, munduko herrialde gehienetan ez da oraindik lortu 1920ko dekretu horren parekorik. 58 herrialdetan abortua guztiz legala da emakumeak hala eskatuta; 134 herrialdeetan legezkoa da soilik egoera jakin batzuetan, emakumearen osasuna arriskuan dagoenean, adibidez; eta 5 herrialdetan guztiz debekatuta dago oraindik. ●

## Enperadore fotoerrealistak

Daniel Voshart artista kanadiarra 54 erromatar enperadoreen irudi fotoerrealistak osatu ditu Roman Emperor Project ekimenaren bidez; ezkerreko irudian, Augusto (K.a 27- K.o. 14) eta Maximino Trax (235-238) enperadoreenak ikusten

dira. Voshartek Artbreeder erabili du horretarako, sare neuronalak baliatzen dituen tresna digitala, eta, horri esker, "ikasteko" gaitasuna duena. Enperadoreen milaka eskultura eta pintura hartu ditu oinarri, baina baita idatzizko erreferentzia historikoak ere. ●







DANI BLANCO

## Iritziak orekatu nahian

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

**B**atzuk euren ahotsa entzun dadin oihu egin beharrea sentitzen dira. Oihu egiten ausartu egin behar, baina. Sarri ez da erraza eta akaso formulak beste bat behar luke: zenbaitek isildu egin beharko lukete beste batzuek hitz egin dezaten. Ordea, agian, bi formulen arteko muga ez da hain argia eta bi aldeetatik dago tira beharra. Oihu egin beharrea sentitzen denak ederki identifikatzen du arazoa, tarteka isildu beharko lukeena eroso dagoen bitartean. Hasteko, mahai gainean jar ditzagun gure artean ditugun desorekak, azter dezagun errealitatea eta eman dezagun pauso bat aurrera.

ARGIAk iritzien atala aztertu du. Zigor Oleagak hartu du bere gain atalaren ardurara orain hilabete batzuk eta ordura arte Mikel Asurmendi kazetariak egindako lanari jarraipena eman dio. Denbora honetan zenbait datu ateratzeko tartea hartu du generoaren, adinaren edo pertsona arrazializatuen aldagaiak kontuan hartuz. Aztertu ditu bai argia.eus webgunean zintzilikatzen diren iritziak (jendeak bere kabuz bidaltzen dituen testuak), bai astekean argitaratzen direnak (ARGIAk eskatuta zutabea idazten dutenak). E-mailtzak imajina ditzakezu, irakurle: 30 urtetik beherako inor edo ia inor ez, pertsona arrazializaturik ez eta interneten argitaratzeko iristen diren artikuluetan

emakumeak askoz ere gutxiago gizonetakoak baino. Aldiz, ARGIAk astekarirako eskatzen dituen iritzietan egun parekidesuna lortu da.

### NOLA PAREKATU BALANTZA?

Erredakzio taldean aztertu dute egoera eta denen artean hartu dituzte erabaki batzuk, pixkanaka burutuko badira ere iparra markatuko dutenak. Ez dago azterketa horren datuak ikusi beharrik jakiteko orokorrean gizonetakoak, adibidez, errazago botatzen dutela beren iritzia emakumeek baino. Bileran batean, hitzaldi batean, eztabaida batean, iritzi artikuluan batean. Beraz, nola lortu emakumeen iritziak ere kopuru bertsuan zabaltzea? Webgunean jartzen diren iritzi artikulua jendeak bidalitakoak dira eta hauetatik portzentaje oso altu bat gizonetakoena da. Hori erregulatzea ez da erraza, ez baita ARGIAk aukeratutako zerbait. Hortaz, balantza orekatzeko aldizkarian emakume gehiagoren hitzak argitaratzea da helburua. Ez bat-batean. Pixkanakako prozesua izango da, naturaltasunez emango den trantsizioa.

Gazte edota pertsona arrazializatuen kasuan berdin. Iritzi sailerako hurrengo fitxajeak egiterako garaian aspektu hauek hartuko dira kontutan, poliki-poliki espazio hori orekatu dezagun. ●

**ARRAZOI EKONOMIKOENGATIK EZ DA INOR ARGARIK GABE GELDITUKO**



Kaixo lagunok,

Ez dira betiko garai onenak. Horregatik, garrantzitsu ikusi dugu komunitatearengana berriro ere zuzentzea gauza bat gogorarazteko: arazo ekonomikoak badauzkazu, eta Argia gus-tura irakurtzen baduzu, mesedez, ez dadila hori izan kidetza bertan behera utzi eta Argia jasotzeari uzteko arrazoia. Ez dira une xamurrak, baina gure partetik behintzat babes eta goxotasun osoa helarazi nahi dizuegu: ostalaritzako lagunei, langabezian geratu direnei, soldatak jaitsi eta lan baldintzak are gehiago prekarizatu dizkietenei, besarkada estu bat gure partetik.

Argian, komunitateko jende eskuzabal askok batez bestekoa baino diru gehiago jartzen du, besteak beste egoera zaurgarriagoan daudenen Argia irakurtzeko aukera izan dezaten. Azkeneko hilabeteetan, gainera, asko izan dira ahalegin solidario hori egin dutenak eta horiei ere eskerrak eman nahi dizkiegu. Egia esan komunitate zoragarria da hau eta oso harro gaude denon artean egiten ari garen lanaz.

Pandemia honek oinarriak ongi jarrita harrapatu gaituela sentitzen dugu. Azken urteetan egindako aldaketan artean, besteren artean, harpidetza eredia malgutu genuen, horrelako momentuetan hobeto erantzun ahal izateko, herritarren informatzeko eskubidea bermatzen saiatzeko. Horregatik, arrazoi ekonomikoengatik kidetza eteteko gurekin harremanetan jarri izan diren lagunei doan bidaltzen diegu aldizkaria, egoerak uzten dienean, bueltan deituko dutela konfiantza osoa daukagulako. Eta zenbat ote dira, hainbat hilabeteren ostean, berriro deitu digutenak! Hori da eraiki nahi dugun mundua, eta horregatik jokatzen dugu honela.

Ordaintzeko arazoak badituzu, deitu telefono honetara (0034) 943 37 15 45 edo idatzi harpide@argia.eus helbidera. Komunitateko kide guztiek oso argi izatea nahi dugu: arrazoi ekonomikoengatik ez da inor geratuko Argiarik gabe.

# IZAN TXORIAK BURUAN



**JAKOBA ERREKONDO**  
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

**N**i, noski, naturazalea naiz. Makina bat aldiz entzun eta esan duguna. Hori arin-arin diogunok geroni, pixkanaka edo abaila bizian, gure ingurunea suntsitzen ari gara: produktu kimikoak erabili, zuhaitz zaharrak edonola bota, heskaiak desegin, zaborgintza erraldoia, kutsadura hiltzailea...

Gure osasunaren oinarria den bioaniztasuna gero eta urriagoa da, eta zenbait tokitan zeharo eskastua. Bide horri eusten diogun artean gureak gero eta okerrago egingo du.

Bioaniztasuna aberastea helburu duten ekimen ugari ikusten ari gara. Niri gehien interesatzen zaizkidanak ingurune hiritarrenetan izaten direnak dira. Naturaren zapalkuntzak eta txikizioak hor du sorburua. Hortik elikadura, ingurumena, landagunea, natura eta abar nola ikusten diren, arabera gauzatzen dira gero lurralde osoari eragiten dizkion plangintzak eta politikak. Hor eragin beharra dugu, eta ez noa ezer berririk esatera: ekintza txikiak, toki askotan sortzea dugu premia: herri baratzeak, etxe baratzeak, kontsumo arduratsua, energia berriztagarriak... Hau da, soilik politiko ez den maila guztietako burujabetza, politikoena, alegia.

Ez dugu inoren hagin duaren zain



KAY ROXBRY / ALAMY STOCK PHOTO

egon behar. Gure etorkizuna hobetzeko bide bakarra dena lortzeari lotu eta ekin. Eman gaitezen zerbaitea. Guk egiten dugun hori da naturaren zapalkuntza eta txikizioaren bidea hankaz gora jar dezakeen abiapuntu bakarra, egungo joera iraul dezakeen palankaren euste-puntua.

Landareak gustuko badituzu eta fruta arbolak, basoa, lorategia, baratzea, loreontziak edo dena delako txokoren bat baduzu, proposamen txiki bat egin nahi dizut: txoriengan pentsatu. Txo-

riek ederki adierazten dute bioaniztasunaren maila. Zailtasun handiak dituzte maiz habiak egiteko eta elikatzeke, batez ere hiri handietan. Landaredi egokiak bazka, ura eta babesa emango dizkie: habiak egiteko adarrak, jango dituzten intsektuak erakarriko dituzten lore eta abarrak, aterpetuko dituzten hostajeak, fruta gozoak eta hazi hazkurritsuak. Horri ura edateko eta bainatzeko putzutxo edo ontzi bat erantsiz gero, bikain.

Ez da zaila. Landaketaren bat egin behar duzunean txoriak izan buruan. ●



## HIZKUNTZA

berean hitz egiten dugu

ORKLIN, konfortaren eta pertsonen segurtasunerako soluzioetan munduko liderra izanik, hizkuntza berean hitz egiten dugu. Konpromiso sozialaren, zintzotasunaren, talde-lanaren, aniztasunaren eta iraunkortasunaren hizkuntzan aritzen gara...eta gainera euskaraz.

"Funtsezkoa ikusezina da begientzat"  
Antoine de Saint-Exupery



## JAKOBA ERREKONDO

## “ESPIRITUA ELIKATU ETA EGUNEROKO BIZITZA OSATZEN DIGUTE ETXEKO LANDAREEK”



**GARAZI ZABALETA**  
@TIRIKITRANN

**K**alean da Jakoba Errekondok ARGIArekin argitaratu duen *Etxeko landareak* liburua. Baratzetik etxeetarako eta lorategietarako saltoa eman du liburu horretan, eskaria bazegoela ikusita: “Batzuek baratzea badute, baina etxe barruan, lantokian edo beste edozein lekutan landareak ia jende guztiak ditu”, dio.



DANI BLANCO

### Zer aurkituko du irakurleak liburuan?

Hasierako zatian landareen zaintza eta ezagutzarako oinarrizko gaiak azaltzen dira: zaintza lanak, argia, elikadura, landareak nola aukeratu, birlantaketak nola egin, aireztapena, ugalketa eta abar. Gaitzei eta izurriteei beste atal bat eskaini diegu, eta horretan sail bitxi bat ere badu: etxe barruko airearen kutsadura garbitzen duten landareen ingurukoa. Liburuaren zatirik handiena, dena den, landareen fitxek osatzen dute: 92 landareren fitxak daude. Historia, jatorria, izena nondik datorkion, deskribapena eta argazkia, barietate ezberdinak, izan ditzakeen

gaitz eta izurriteak, trikimailuak... hori guztia azaltzen da fitxa bakoitzean.

### Norentzat izanen da erabilgarri?

Landareei buruz gehiago jakin nahi duen edonorentzat egin dugu: historia hobeki ezagutzeko edo izenak eta landareak berak nondik datozen ikasteko. Hemen ditugun landare gehienak tropikoetakoak dira, eta liburuan euskarazko izenak proposatu ditugu. Orain arte landare horietako askok ez zuten izenik euskaraz, egunero iristen baitira landare berriak. Izen zientifikoa badute eta ingelesetik datorrena ere bai, baina jatorrizko herrian duten izena euskarara ekartzen saiatu naiz. Jatorrizko herrietako hizkuntza eta kulturatan duen esanahira jo dut batez ere euskarazko izendapenak egiteko.

### Baratzeko landareek fruituak ematen dizkigute. Zer ematen digute beste landare hauek?

Hauek edertasuna eta gozamina ematen digute, konpainia egiten, hobeak izaten laguntzen digute, loratzen dira eta haiekin gu ere loratzen gara. Baratzeko landareek elikagai fisikoak ematen dizkiguten bitartean, hauek gure espiritua elikatzen dute, gure eguneroko bizitza osatu. Landareok gustukoak dituen jendea ezagutzean edo landareei hitz egiten dioten emakume bat topatzerakoan, nabarmena izaten da hori. Horregatik eskaini diet haiei liburu.

### Badugu Euskal Herrian etxeak eta atariak landarez apaintzeko ohiturarik?

Badago ohitura, bai. Baserrietan, etxe arruntetan eta toki askotan marabilak ikusten dira, eta nik uste balkoi eta terrazetan ere geroz eta gehiago ikusten direla. Gainera, orain datorkigun bizi-modu honetan nik uste dut geroz eta indar handiagoa hartuko dutela. ●

## EUSKAL HERRIKO AGENDA

### AZAROAK 21 / HONDARRIBIA

Jakoba Errekondoren *Etxeko landareak* liburuaren aurkezpena.

**11:00etan Endanean.**

Antolatzailea: Hondarribiko Udala.

### AZAROAK 28 / AIZARNAZABAL

Jakoba Errekondoren liburu berriaren aurkezpena egingo da eguerdian,

**12:00etan.**

Antolatzailea: Aizarnazabalgo Udala.

## Etxeko landareak liburuaz aipuk



“Zer pentsatua ere eman dit liburu honek. Oso gertutik bizi dut natura, landareak eta animaliak bereziki, baina alderdi maskulinizatuenetik, basogintzatik. Egia esan, sekula ez dut etxeko landareenganako interes handiegirik adierazi, ez nau erakarri, ezta arduratu ere. Etxean izan, baditugun arren. Eta oraingo honetan ere ez da kasualitatea izango, noski, feminizatutako alderdi hori alboratu izana. Beraz, badut beste etxerako lan bat; etxe barrura begira jartzea. Baita tresna berri bat ere; barruko landareak”.

**Markel, Aramaiotik**

## KOMISARIOTZARI BURUZKO NAZIOARTEKO SINPOSIOA BILBON

---



Mladen Stilinović artistaren *An Artist Who Cannot Speak English Is No Artist* lanak (1992) zeresan handia eman zuen.

Hala zioen Mladen Stilinović artista kroaziarrak 1994. urtean oihal arrosa batean idatzi zuen esaldiak. Lelo hori, 90eko hamarkadako enblema bilakatu zen, batez ere Europako periferia deiturikoan bizi eta lan egiten zuten artista eta kultur eragileentzat. Mundu globalizatuaren aurrean beraien nortasun propioa aldarrikatzeko oihua zen. Milurteko berriaren atarian egin ziren tankera horietako adierazpen eta arte erakusketak izan ditu hizpide urrian Bilbon egin den komisariotzari buruzko nazioarteko sinposioak.

 JONE ALAITZ URIARTE

**IV.** *Topaketa: erakusketaren saioa (1977-2017) antolatu berri dute Bulegoa z/b-koek Azkuna Zentroan.* Duela lau urte hasi ziren antolatzen jardunaldi horiek eta helburua argia da: hamarkada jakin batean aurkeztu ziren erakusketa eta proiektu artistiko adierazgarriak ikertzea, horietan parte hartu zuten eragileen bitartez. Aurkezpen horietatik diagnosi, irakurketa eta ondorio ugari ateratzen dira, interesgarriak direnak gaur egungo testuinguruarekin alderatzeko eta, etorkizuneko norabide posibleak iragartzeko.

Aurtengo edizioan, 1997tik 2007ra bitartean ekoitzi ziren hainbat erakusketa paradigmatikotan sakondu da eta garaiko testuinguruaren baitan aztertu dira. Hori guztia, han eta hemen ibilitako arte-komisario, -kritikari eta artisten parte hartzearekin egin

da. Luxuzko gonbidatu zerrenda pandemiaren erdian: Washington, Londres, Zagreb edo Stockholmetik etorri izan ezin direnen ahotsak *streaming* teknologiei esker iritsi dira Bilbora.

Garai horietako arte erakusketen gaineko diagnosis egiteko orduan, bada kontuan hartu beharreko adierazle batzuk: milurteko aldaketarekin batera mundu globalizatua- ren interkonexioak

biderkatu ziren eta teknologia digitalak –Internet kasu– abiadura bizian garatu ziren. Urte horietan komisarioaren figura ere erdigunean kokatu zen, erakunde artistikoak berri eta horien funtzioak birpentsatu ziren eta “industria kultural” deiturikoen gorakada ere gertatu zen. 1990eko hamarkadako arte erlazionalaren mugimenduak, Nicolas Bourriaud kritikari eta komisarioak hala izendatu zuen korronteak, adierazpen artistikoak artikulatzeko eran zeresana izango du oraindik. Motzean esanda, garrantzi handiagoa ematen zitzaion dinamika artistikoaren parte ziren pertsonen artean suertatzen ziren harremani, objektu artistikoi baino. Adierazle horiek guztiak eta gehiagok markatuko dute hamarkada horretako amalgama.

Orduko panorama kultural horren nondik norako orokorrak marraztuta, gonbidatuek beren ekarpen propioak egin zituzten. Londresko Goldsmiths unibertsitatean irakasle den Yaiza Hernández komisario kanariarrak, Las Palmaseko CAAMen –Arte Moderno-ko Zentro Atlantikoaren gaztelaniazko siglak– aurkeztu zen *El corazón de las tinieblas* (Ilunbeen bihotzean) erakusketa ekarri zigun gogora. Porrot egin zuen proiektua izan zen hura, besteak beste, ez zituelako kontuan hartu medioek “kaiukoen krisia” gisa izendatu zuten migrazio fenomeno eta hurbileko egoera politikoa, Afrika erdigunean zuen proiektu artistikoa izan arren. Stockholmetik, Maria Lind komisarioa



*Juguemos a prisioneras* marrazki-liburua (Azucena Vieites, 1998)

*A Fiesta of Tough Choices* (Aukera zailen festa bat) erakusketaz mintzatu zen eta, berak hautatutako testu batzuen bitartez, 2000. urte hasieretako Londres hiriko politika kultural *mainstream*-ak ekarri zituen argira, zeintzuetan artea eta kultura interes ekonomikoetarako tresneria bailiran erabili ziren, inpaktu handiko proiektu artistikoak lehenetsiz besteen aurretik. Interesgarria izan zen oso Zagreben sorburua izan zuen WHW (What, How & for Whom) kolektiboko Ana Dević-ek emandako hitzaldia ere. Lau emakumez osatutako proiektu kurtatorial honek, batik bat, erakusketak antolatzen eta argitalpenak ekoizten egiten du lan. "Zer?", "nola?" eta "norentzat?" dira antolaketa ororen oinarritzko hiru galderak, eta funtsezkoak dira erakusketak planifikatzeko, sortzeko eta egiteko, baita artelanak ekoizti eta jendaurrera aurkezteko ere. Horiek dira, beraz, WHW kolektiboak egiten duen lan ororen ardatzak. Dević-en hitzaldia luze aritu zen *An Artist Who Cannot Speak English Is No Artist* (Ingelesez hitz egin ezin duen artista ez da artista) obra ikonikoaz. Ruth Noack alemaniarrek eta Lisette Lagnado brasildarrak, Kasseleko 12. Documenta eta São Pauloko biurtekoaz mintzatu ziren, hurrenez hurren. Mega-egitura zurrun hauetan gutxiengoen diskurtsoak txertatzeko zeunden –eta dauden– zailtasunez aritu ziren, izan feminismoa, izan kultura herrikoia; eta horien inguruan jardun zuten: nola eragin aldaketak behin erakunde barruan zaudela?

Euskal Herriko garaiko testuinguruaz ere hitz egin zen. Azucena Vieites artistak, 90eko hamarkadako aipamen batzuk ekarri zituen gogora bere hitzaldian. Lo-fi edo "zuk zeuk egin" praktiken bitartez, berak eta Estíbaliz Sáda-bak 1994. urtean sortu zuten *Erreakzioa/Reacción* erresistentzia feminista-rako proiektuaz aritu zen. Fanzineak, hitzaldiak, mintegiak eta tailerrak antolatzen zituzten; esaterako, Artelekun 1997an egin zuten eta hilabete iraun zuen *Solo para tus ojos* (Zure begientzat

bakarrrik) tailerra. Feminismoa, artea ekoizteko modu prekarioa eta garai horretako hainbat lagun artistaren lanek izan duten garrantzia –Itziar Okariz, Jon Mikel Euba...– azpimarratu zituen *Juguemos a prisioneras* (Jolas gaitzezen presoe-tan) marrazki-koadernoko irudi zoragarririk ikuskatzen genituen bitartean.

Peio Aguirre arte-kritikariak, sinposioaren aurretik antolatu ziren lau tailerretako bat zuzendu zuen eta *Gara* egunkariko *Mugalari* gehigarri kulturalan zentratu zuen bere saioa. Bertan, 2000-2004 bitartean argitaratutako hainbat arte kritika eta artikulu hizpide hartuta, garaiko Euskal Herriko esparru artistikoan aurkeztu ziren erakusketa eta ekimen ikoniko batzuk aipatu zituen. Horien artean, Artelekuk antolatu zuen Elektronikaldia edota, D.A.E-k (Donostiako Arte Ekinbideak) egin zuen Superkongresua. Berezia izan zen oso *Mugalari*-ko orrialde txuri-beltz horietan lanean aktibo jarraitzen duten artisten lehen erakusketen argazkiak ikustea, Amsterdamera edo Bruselara egin zituzten lehen bidaien kronikak irakurtzea eta zenbait kritikak eragin zituzten polemiken jarraipena egitea. Arte kritikariaren rolaz ere luze hitz egin zen.

Nolakoak izango dira hemendik eta hamabost urtera egingo diren arte erakusketak? Nolakoak izango dira etorkizuneko publikoak? Arte-kritikariek egingo ote da? Hauek dira airera bota ziren galderetako batzuk. Erantzuna zein den jakiteko, atentzio handiz begiratu beharko diegu datozen garaiei. ●

Wu Ming kolektiboaren "Proletkult" nobela

# MARXISMO MARTETARRA

Wu Ming literatur kolektiboaren *Proletkult* (2018) "objektu narratibo" berriak sozialismoa eta zientzia fikzioa lotzen ditu, Sobiet Batasuneko zientzia fikzio klasikoaren aitzindari izan zen *Izar gorria* (1908) nobela eta haren egile Aleksandr Bogdanov boltxebikearen bizitza gorabeheratsua berrikusiz. Bogdanov iraultzailea ez ezik, pertsonaia xelebrea ere izan zen: medikua, ekonomialaria, filosofoa eta Proletkult mugimendu proletario eta artistikoaren sortzaile eta ideologoa.

**JULEN AZPITARTE**

**B**ogdanovek planeten arteko bi daia bat kontatu zuen *Izar gorria*-n, sozialismoaren onurak azaltzeko xedearekin, Lenin kamaradari testu epela iruditu zitzaion arren –hamaika ika-mika dialektiko eta filosofiko izan zituzten erbeste garaietatik, eta azkenean, Leninek alderditik bota zuen Bogdanov-. Liburuak istorio sinplea kontatzen du: Errusiara egindako bisita batean, giza itxurako infiltratu martetar batek "Lenni" izeneko militante iraultzaileari –ez dago azaldu beharrik noren trasuntua den pertsonaia hori– aitortuko dio Marten sistema sozialista bat ezarri dela. Iraultzak arrakasta izan zuen han duela mende asko; neurri batean, Lurrarenak baino egokiagoak ziren egoera historikoengatik.

*Izar gorria*-ren argumentutik gertu, *Proletkult* eleberririk haxe kontatzen du: Nacun planetako Denni izeneko emakume estralurtar gazteak Sobiet Batasuna bisitatuko du sobietar iraultzaren hamargarren urteurrenaren ospakizunetan. Halaber, 1905eko Errusiako Iraultzaren ezteandaren ondotik, Leonid Volotx boltxebikeak planeta hori bisitatu omen zuen, bai eta sozialismotik gertu zegoen gizarte ideal kosmiko bat ezagutu ere. Bada, Volotxen ustezko alaba da Denni, eta egun desagertuta dagoen aita Nacunera eramateko etorri da gure planetara. Bilaketa horretan, *Izar gorria* nobela aurkituko du aitak abandonatutako



Aleksandr Bogdanov idazlea (ezkerrean), aspertu samar dagoela dirudien Leninekin (eskuinean) xake partida jokatzen, Maxim Gorki (erdian) begira dutela.

gauzen artean, izan ere, Leonidek Nacunera egindako bisita kontatu zion Bogdanov lagunari, eta gertaera horretan oinarrituta idatzi zuen hark *Izar gorria*. Bogdanovek ez du Denniren kontakizuna sinestsiko, baina lagundu egingo dio. Bidean, iraganean lagun boltxebikeak ziren eta egun kargu garrantzitsuak dituzten agintari sobietarrak aurkituko ditu mediku diharduen idazle ohiak.

Hala, nobelak detektibe-kutsua izanagatik ere, iraultza sobietarrak bere lehen hamarkadan egindako ibilbideari

buruzko hausnarketa biltzen du: batetik, Bogdanoven garai iraultzaileko eta erbesteko oroitzapenen bidez; eta bestetik, kamarada zaharrekin izango dituen solasaldien bitartez. Ondorioz, nobelan errealitatearen eta fikzioaren arteko mugak lausotu egiten dira. Finean, Wu Mingek iraultza erreala baten inguruko gogoeta egin nahi du, Bogdanov ardatz hartuta. Horrekin batera, errebolta horretan kulturak zein funtzio bete behar duen aztertu nahi du, benetako kultura proletarioa eta iraultzailea sortzeko.



Ezkerrean Bogdanoven *Izar gorria* eleberriaren errusierazko edizio zahar baten azala; eskuinean, Wu Ming kolektiboaren azken nobelaren italiar edizioarena.

## KULTURA BERRI BAT

Marxismoaren arabera, kultura klase sozial menderatzaileari lotutako egitura handiaren zati bat da. Hala, Tsarren Errusian, aristokrazia elite intelektuala zen eta langileak ikasle gisa hartzen zituen, baina langileriak boterea lortzean, kultura berri bat sortu-ko zen, zeinak lehengo erregimena ordezkatzeko zuen.

Kultura proletario berri hori gidatzeko, hau da, langileek arte eta politika berriak sor zituzten, Aleksandr Bogdanov eta Anatoli Lunatxarski filosofoek Proletkult sobietar arte-erakunde esperimentalak eratu zuten Petrogradon –gaur egun San Petersburgo– 1917ko iraultzarekin batera. Erakundearen oinarrietako bat autonomia zen, alderdi komunistaren atzapar ahalguztidunetatik urruntzeko asmoz. Sergei Eisenstein zinegileak eta Maxim Gorki nobelagileak, besteak beste, abangoardiako erakundearen teoria bereganatu eta praktikara eramane zuten. “Genio handiak beti borrokatu dira askatasun sortzailearen alde, eta mezenen exijentzien eta klase menderatzailearen zentsuraren aurka borrokatu dira. Horregatik Shakespeare, Puxkin, Dante ez dira burgesiarenak, ezta lur-jabeenak ere, gureak dira!”, dio Lunatxarskik *Proletkult* eleberrian.

Bada, kultur erakundeak izugarrizko arrakasta izan zuten: hezkuntzako komisariotzaren funtsen herena jaso zuten, eta 84.000 afiliatu eta milioi erdi jarraitzaile izan zituen. Ikonoklasia, futurismoa eta konstruktibismoa oso errotuta egon ziren antolakundeetan, eta azkenean desegin egin zen alderdiko indar ortodoxoenen mesfidantzaren ondorioz; Narkompros hezkuntza publikoaren administrazioaz arduratzen zen sobietar agintziak hartu zuen bere gain. Wu Ming literatur kolektibo italiarrak idatzitako liburuaren arabera, Leninen aburuz, Proletkult intelektual utopista burgesek zuzendutako mugimendu bat zen: “Anabasa intelektualisten eta kultura proletario deritzenen erabat aurka nago”.

Bogdanov alderditik atera zuten mediku aritzeko. Transfusio-zentro bateko zuzendari izendatu zuten, zeina aitzindaria izan zen nerbio-gaixotasunak sendatzen. Halaber, Bogdanov odol-transfusioen bidez gaztetasuna luzatzen saiatu zen, *Izar Gorria* nobelako martetarrek egiten zuten bezala.

Batzuentzat ameslari, beste batzuentzat utopista inozo. Bogdanov, agian, “marxista martetar” bat baino ez zen izan. ●

## Wu Ming: NARRAZIOAREN PIRATAK

Wu Ming 2000. urtean Italiako Bolonia hirian eratutako literatur kolektiboa da. Wu Mingek “anonimoa” esan nahi du txineraz, nahiz eta esanahi gehiago dituen, tartean, “bost gizon”. Taldea sasi-anonimoa izanagatik ere, taldekideen izen eta goitizenak ezagunak dira. Unibertsitatean ezagutu zuten elkar, eta kolektiboki eraiki dute beren ibilbide literarioa, taldekideek ez baitzuten aurretik literatur eskarmenturik. Hasieran Luther Blissett goitzenaz aritu ziren, eta ezizen horrekin sinatu zuten *Q* best-seller ospetsua. 2000tik aurrera baina, bosgarren kidea sartu zenean, izengoiti txinatarra aukeratu zuten, bai eta 54 eleberria idatzi ere. Taldearen literatur jarduna xede politikoak dituzten arrakasta handiko eleberririk historikoetan gauzatu da.

Izaera kolektiboaren hautua taldearen nobeletan agerikoak diren printzipio politikoekin zuzenki lotuta dago. Lan horietan, halaber, komikiaren, musikaren eta zinearen eraginak ere nabarmenak dira, haien aburuz literatura ez baita herri-kultura baino arte jasoago bat. “Idaztea borroka politikorako modu bat da, ezbaierik gabe. Gure poetika eta praktika narratiboak munduari buruz dugun ikuspegia islatzen dute”. Horretarako birjabetaz eta berridazketaz baliatzen dira fikzioarekin solastatzeko asmoz; horren adierazle da *Proletkult* bera.

Taldekideak banaka ere aritzen dira. Bakar-kako lan horiek taldean egindako best-seller historiko klasikoaren formatutik aldentzen dira, pop kutsuko metatestualki izaten jarraitzen duten arren; esaterako, taldeko bozeramaile Wu Ming 1-ek idatzitako *New Thing* (Gauza berria, 2004), zeina 1960ko hamarkadan kokatzen den, AEBetan: “Whiteman-en semea” goitzenaz ezagutzen den serieko hiltzaile batek eskubide zibilen alde dauden abangoardiako jazz musikariak erailtzen ditu.

Erakunde politiko guztietan bezala, gatazka ugari izan dira kideen artean. Entzutetsuen 2015ean gertatu zen, Wu Ming 5 kideak kuadrilla utzi zuenean: “Enpresa bat da”, salatu zuten. Bidean, Wu Ming 3-k ere militatzeari utzi zion. Erakundearen erantzun ofiziala: “Une jakin batean amaitu zen haiekiko sintonia. Familiarik onenetan ere gertatzen da”. Jakinarazpen ofizial gehiago: [www.wumingfoundation.com](http://www.wumingfoundation.com).





LIBURUA

# Txanogorritxuren alabaz



## LORERIK GORRIENA

EGILEA: ITZIAR OTEGI

ILUSTRAZIOAK:

SANDRA GARAYOA

PAMIELA, 2020

### XABIER ETXANIZ ERLE

istorio honen narratzailea neska bat da, baso ondoan bizi omen da baina aita bakarrik joaten da basora amari hainbeste gustatzen zaizkion lore gorrien bila. “Amari izugarri gustatzen zaizkio loreak. Batez ere, basoaren bihotzean jaiotzen diren lore gorri berezi batzuk. Baina ama ez da inoiz joaten lore horien bila. Aitak ekartzen dizkio, eta, orduan poz-pez jartzen da”. Eta Sandra Garayoaren ilustrazioan ama eserita ikusiko dugu, geldirik, mugitu gabe, eta aita, eskopeta bizkarrean, lore gorria eskaintzen. Bien artean, lurtean neskato bat lore gorriak marrazten paper batean. Irudiak zuri-beltzean dira eta etxea irudikatzen duen marran, lorontzian, neskatoaren margoan eta oinetakoetan eta aitak dakarren lorean ageri den gorriak ukitu berezia ematen dio.

Neskatoak esaten digunagatik laster jakingo dugu Txanogorritxuren alaba dela eta ama, “Gertakari Handia” izan zenetik ez dela basoan barneratu. Neskatoak, baina, aspertuta Gertakari Handian kateatuta bizitzeaz basora lore bila joatea erabakitzen du. Ondoren azalduko zaigu otsoarekin duen topaketa, nola ezkutatzen den, nola eskuratu beldurrei aurre egiteko adorea eta amaren laguntzarekin nola gainditzen duten familia preso zuen gertakaria: “Zutitu ginenean, luzea eta ahalsua zen gu bion itzala, eta otsoarena, berriz, ahula”.

XIV. Etxepare saria eskuratu duen lan honek baditu azpimarratzeko hainbat alderdi, alde batetik ipuin tradizionalekin egiten duen jolasa –Txanogorritxuren alaba protagonista jarriz eta

honen amak dituen beldurrak, etxe-koak preso dituen iragana, gainditzeko nahia erakutsiz-, bestalde Itziar Otegi-ren idazkera neurtua, aberatsa eta album askotan ohituta ez gauden luzera duena; era berean Sandra Garayoaren ilustrazioak ere nabarmenak dira, kolore gutxi batzuk erabiliz –beltza eta gorria batez ere– lortzen duelako istorioak duen tonua ederki islatzea, eta protagonisten eta espazioen interpretazio sinbolikoak, errealismotik at, are indar handiagoa ematea kontakizunari.

Istorioren erakargarria, edozein modutan, Txanogorritxuren ipuinari jarraipena emanez, norberaren barneko beldurrei aurre egiteko liburu proposa eta haurrekin behin eta berriro ikusteko, komentatzeko, aritzeko, disfrutatze modukoa, alegia. ●





MUSIKA

# Bluesa bihotzean



**JOXI UBEDA GOIKOETXEA**

Iker Piris gitarrista bikaina da eta bere bihotz guztiarekin abesten du. Bluesa maite du. The Romantics taldeko gitarrista, abeslaria, konpositorea eta gidaria da, baina taldea denbora batez alde batera utzi du, eta bakarlari moduan kaleratu du garai bateko blues kantaz osaturiko *Solo* diskoa, gitarra akustikoarekin.

Amerikako Estatu Batuetako landa giroko blues doinuak dira. Garai batean egiten zen bezala egin du grabazioa, 1940ko hamarkadan egin izan balitz bezala, modu analogikoan, eta garai horietako blues espiritua ezin hobeto gauzatu du. Horretarako, Jorge Muñoz-Cobo musikari eta produktorearekin elkarlanean aritu da, eta nabarmena da kantak grabatzea gozamina izan dela haientzat.

Iker Piris aditua da blues musikan, oso ikastuna, eta garai horietako blues kanta ugari ezagutzeaz gain, oso ezagunak ez direnak ere bai, kanta horiek jotzen ere badaki, oso ongi jakin ere, eta sentimendu guztiarekin abesten du. Horietako batzuk entzun daitezke *Solo* diskoan, Robert Johnsonen, Blind Lemon Jeffersonen, Little Walteren, Tampa Reden eta Tommy Johnsonen hainbat kantaren bertsioak. Baina, kanta horiez gain, Iker Pirisek berak sortutako beste batzuk ere badaude, eta blues akustiko primitibo bilduma polita osatu du bere kantekin eta bertsioekin.

Duela hamar urte hasi zen jotzen eta, pixkanaka, behar diren ezagutzak eskuratzen, eta erreperitorioa handitzen, bakarkako proiektu bat martxan jarri ahal izateko. Beraz, azken hamar



## SOLO

IKER PIRIS

GAZTELUPEKO HOTSAK, 2020

urteotako ibilbidearen amaiera irudikatzen duen lana da *Solo* bakarkako diskoa.

Diskoa aurkezteko jendaurreko emanaldiak egingo ditu, bakarka, baina horrez gain, badu bestelako proiekturik ere esku artean. Izan ere, udan buru-belarri ibili da Iker Piris & His Dual Electras izeneko taldearekin, eta diskoa kaleratzeko asmoa du talde horrekin ere. Abdell B. Bob (kontrabaxua) eta Andy Martin (bateria) aritzen dira harekin talde horretan.

Iker Piris musikari handia da, eta hark abian jarritako egitasmoez gain, beste zenbait musikarirekin kolaboratu du. Bere diskoak entzutea merezi du, eta jendaurreko emanaldi batean ikustea ere bai, jotzeko garaian transmititzen duen grinaz gozatzea. ●



# Paperetik gorputzera

 AMETS ARANGUREN

**K**eak lausotu digu ikusmena Gayarre antzokian sartu bezain pronto. Ez dakigu espektakuluaren parte den ala kableren batek huts egin duen hor nonbait. Balkoietan eseri eta behera begiratu dugu: butaketan inor ez. Jendea aulki tolesgarriz beteriko oholdzan dago jarrita. Eta berriz, ez dakigu ikuskizunaren parte den jende hori, ala publikoa den, normalean aktore eta musikarien espaziotik kontzertua ikusiko duena gaur.

*Escape room* musikal gisa zegoen aurkeztua informazio orrietan performancea. Fagot eta oboe banak osatzen duten duoak ireki du kontzertua balkoi batetik. Zuriz jantzita biak, edo zuriz moztortuta, hobe esateko. 15 zentimetro-edo izanen dituzten takoiak, peluka, soineko harrigarria eta makillajea.

Obra garaikideak obra garaikideen atzetik. Eta gu, *escape room*-etik ateratzeko esperantza handirik gabe. Barregura eragin digu kororik gabeko koro zu-

zendariak, harritu gaitu mahaia (nahita edo nahi gabe?) apurtu duen DJ-ak; Steel Pan bat ikusi dugu lehen aldiz bizitzan eta “alde egin nahi dut” sentitu dut nik aspaldiko partez.

Salako butakak estaltzen dituen plastikoz jantzi da oboe-jolea, soinekoa egin du Mediterraneo itsasoko olatuak simulatzen dituen plastiko garden handiaz, eta biluztu da parean zuen partitura-ko azken nota bukatzean. Emakumezko batek norbait hiltzen denean sentitzen duen mina irudikatzen omen zuen biluzi horrek. *El cuerpo imaginado* (Gorputz imaginatua) izena jarri diote performanceari, zuzendariaren hitzetan “partituran idatzirik zegoenari gorputza jartzea” baitzuen xede gaurkoak. Baina ez, ez da nahikoa izan obra bakoitzean jantziak aldatzearekin, ikuskizun guztiari zentzua emanen dion haria falta da.

Motibo melodikorik ez duen musika da “garaikidea” kasu honetan; efektuek, tinbre desberdinek eta “zaratek” osatzen

## WE PLAY: EL CUERPO IMAGINADO

**NOIZ:** urriak 28

**NON:** Iruñeko Gayarre antzokia

дутена. Eta, kontrakoa ematen badu ere, normalean instrumentua primeran kontrolatzen duen jendea da horrelakoak jotzeko gai. Ez da hasi berriak jotzen ohi duena.

Oraindik kostatzen zait halakoekin disfrutatzea. Flipatu dezaket lehenengo minutuetan, are gehiago jotzen dudana instrumentu bat erabiltzen badute, jakin dezakedalako zein puntutaraino den zaila edo ez efektu horiek lortzea, baina ez dut gozatzen. Eta zalantza dut ohitura kontua ote den musika mota hau baloratzea.

Arteak ez du zertan ederra izan, badaikit. Gainera, edertasunaren ezaugarriak ezin dira objektiboki definitu, baina eragitea ez al da artearen ezaugarri ere bai? Ezinegona bada ere, hori sentiaraztea?

Sentsazio gazi-gozoz atera gara antzokitik. Ez dakit inoiz horrelakoak baloratzeke gai izanen naizen, baina gaurkoan ez, ez dugu lortu *escape room*-etik ihes egitea... ●



# Bertso-zopa

Osatu Andoni Egañak 2018an Zumaian botatako bertsoa. Laguntza behar izanez gero, bertsoari falta zaizkion hitzak zopan bilatu. Doinua: *Azken arnasa eman nahi nuke*. Gaia: Lazkao Txiki hil zela 25 urte joan dira, baina oso gogoan daukazu oraindik ere.

Lazkao Txiki joan zitzaigun miretsi bezin \_\_\_\_\_  
 plaza askotan hainbat hutsune bere \_\_\_\_\_ betea.  
 Hura zan hura disimuloan esan eta esatea mende laurdena joanda normala guk \_\_\_\_\_ izatea bertsoaritzaz horixe baita eteten ez den \_\_\_\_\_.

Ederki asko bete zuen hark bere garaiko \_\_\_\_\_ gu gazteori esaten zigun "Hori etzak esan horrela". Bere aholkua ez zen izaten \_\_\_\_\_ orbela.  
 Ikusirik gaur bertsoagintza maila hortan \_\_\_\_\_ seguru nago Lazkao Txiki oso \_\_\_\_\_ legokeela.

Gaur egunean bertsoaritzan hainbat figura \_\_\_\_\_ hoietan batzuk atzekaldean ikus genitzake \_\_\_\_\_.  
 Lazkao Txiki ordea bitxi ta umorez \_\_\_\_\_ lerdan bere txiste on bat sumatzen nuen begira kontua zer den begietara heltzen zitzaion aho ertzer a bano \_\_\_\_\_.



U	I	Z	T	A	M	N	B	U	R	U	T	A	R	F
D	A	L	P	E	R	R	I	K	A	K	O	B	T	C
I	J	L	B	P	B	N	S	F	L	T	A	E	U	O
Z	M	B	S	D	M	Z	Z	J	Z	R	C	T	F	N
C	N	R	B	A	R	M	E	N	G	A	H	I	E	G
B	E	N	L	E	H	E	N	V	Z	U	V	C	I	A
B	E	N	J	D	O	T	F	R	R	E	F	I	G	C
M	A	I	T	E	A	P	T	P	R	E	T	M	J	H
V	U	L	R	C	S	F	U	G	S	A	D	J	A	G
T	P	M	S	U	V	S	N	J	H	J	Z	L	Z	M
G	I	G	O	F	I	S	Z	T	R	A	E	F	G	H
L	H	J	S	R	L	A	S	I	H	L	R	T	O	E
R	C	I	M	C	E	G	S	V	I	H	R	G	M	
V	D	H	D	U	E	Z	N	B	M	Z	R	H	O	E
P	A	P	E	L	A	R	A	L	C	J	J	S	A	N
C	N	U	Z	B	S	D	P	A	M	L	J	F	N	D

# Sudokua

ERRAZA


6									5	
	1	3				8				9
		9	6				1			
	3		2	6						
5		6					8			1
					4	5			3	
		5			9	7				
7			3				2	1		
	2									5

ZAILA

			2		6	5			1	
			4		9	7	2			
						4				
		4		7	5					2
8		5				6			7	
2			6	8		3				
		8								
	5	2	8		4					
9		6	5		3					

# Gurutzegrama

	1	2	3	4	5	6	7	8	9
1									
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									



MECCANO

Odolostea. **8.** Iltze. / Portua (alderantziz).

### GOITIK BEHERA:

- 1.** Egokia ez dena. **2.** Eskua erabiliz. **3.** Izan. / Bozkario. **4.** Gar, lama. / Erreten, kanal.
- 5.** Argazkiko jokoa. **6.** Kaxalote. / Seigarren musika nota. **7.** Unnilokioaren ikurra. / Sudurretik dariona. **8.** Odol-masa eta bere osagaietako bat gutxitzea.
- 9.** Larruak ontzeko erabiltzen diren gaiak.

### EZKER-ESKUIN:

- 1.** Ezer ez. / Adi, erne. **2.** Norbaiten esku dagoen aginpide. **3.** Musika estiloa. / Eraman.
- 4.** Gizonezko iredun. / Naizen hau. **5.** Galioaren ikurra. / Baiezko, onarpen. **6.** Ardoaren hartzitzetik sortzen den isurkari mingots. / Sasoir heldu. **7.**

### EBAZPENAK

Lazkao Txiki joan zitzaigun/miretsi bezin **maltea** (plaza askotan hainbat hutsune) bere **umorez** beteaz. Hura zan hura disimuloan esan eta esatea/ mende laurdena joanda normala guk **gogoa** izatea/ ber gogaitza honixe bataratzen ez den **katea**./ Ederki asko bete zuen hark/bere gaialko **papaila** gu gazteori esaten zigun/ "Hori etzak esan horrela"/ bere aholkua ez zen izaten **zaperniko** orbela./ Ikusirik gaur bertsoagintza/ maila hortan **dabiela**./ Seguru nago Lazkao Txiki/ oso **harro** legokeela./ Gaur egunean bertsoaritzan hainbat figura **nabarmen**/ hoietan batzuk atzekaldean/ ikus genitzake **hemen**./ Lazkao Txiki ordea bitxi/ ta umorez **beti** lerdan/ bere txiste on bat sumatzen nuen/ begira kontua zer den/ begietara heltzen zitzaion/ aho ertzer a bano **lehen**.

ZAILA

9	7	6	5	2	1	4	8	
1	5	2	8	6	4	9	7	3
4	3	8	1	9	7	2	6	5
2	9	7	6	8	1	3	5	4
8	1	5	3	4	2	6	9	7
3	6	4	9	7	5	8	1	2
6	2	1	7	5	8	4	3	9
5	8	3	4	1	9	7	2	6
7	4	9	2	3	6	5	8	1

ERRAZA

3	2	1	4	8	7	6	9	5
7	9	4	3	5	6	2	1	8
8	6	5	1	2	9	7	4	3
1	7	2	8	4	5	9	3	6
5	4	6	7	9	3	8	2	1
9	3	8	2	6	1	5	7	4
4	5	9	6	3	2	1	8	7
2	1	3	5	7	8	4	6	9
6	8	7	9	1	4	3	5	2

ESKER-ESKUIN:

1. DEUS ZURT. 2. ESKUMEN. 3. ILBARRA. 4. EUNKO. IM. 5. GA. BAIMEN. 6. OZPIN. UMO. 7. ODOKIA. 8. ITZE. AIK. GOKIK BEHERA: 1. PEZKOKI. 2. ESKUAZ. 3. UKAN. POZ. 4. SU. UBIDE. 5. MEKANO. 6. ZERBI. LA. 7. TAINOKO. 8. ANEMIA. 9. UNO. MUKI. 8. ANEMIA. 9.

# Elena Sala

EMAKUME ETXEGABEEN  
BAZTERKETA BISTARATZEN



## EMAKUME ETXEGABEAK

“Denbora luzez aritu naiz genero ikuspegitik gizarte-inklusiorekin lotutako hainbat proiektutan lan egiten. Esperientzia horrek pertsona ugariaren errealitatera gerturatu nau. Azken urteetan goraka egin duen etxerik gabeko emakumeen egoerak kezkatzen nau. Emakume anitz ezagutu dut seme-alabekin eta alternatibarik gabeko etxe kanporatze arriskuan, minimorik minimoenak bermatzen ez zizkien espazio osasungaitzetan bizitzen... Etxebizitarik ez izateak norbere bizitza proiektua aurrera eramatea eragozten du, eta horrek eragin zuzena du buru osasunean. Emakume horiek gertutik ezagutzeak areagotu zuen nik berez emakume etxegabeekiko neukan interesa, eta norabide horretan lanean hasi nintzen”.

## “Etxebizitarik gabe geratzen diren emakumeak ezkutatu egiten dira”

Gizarte hezitzailea, antropologoa eta Bartzelonako ASSIS harrera zentroko Gizarte Arloko kidea da Elena Sala (1983, Bartzelona). ASSIS elkarteak “*Dones amb llar*” (Etxebizitza duten emakumeak) egitasmoa bultzatuko zuela jakin zuenean, igerilekura salto egin zuela dio. Egun egitasmo horren arduraduna da eta etxerik gabeko emakumeak artatzen ditu.

SAIOA BALEZTENA JORDI BORRÀS

### Etxerik gabeko pertsonen zuzendutako harrera zentroa da ASSIS. Noiz erabaki zenuten genero ikuspegia txertatzea?

2005ean hainbat nerabek, Bartzelonako Sarrià auzoko kutzazain batean, Rosario Endrinal etxegabea erre zuten bizirik. Orduz geroztik, emakume etxegabeen errealitateari arreta gehiago jartzen hasi ginen. Era berean, elkartean duela bost urte egin genuen inkesta baten bitartez, agerian gelditu zen egunerokoan ikusten genuena: etxerik gabe gelditzearen zergatiak eta ondorioek desberdin eragiten dietela emakumeei. Adibidez, kalean egoteko arrazoi ohikoena lanari lotutakoa zen gizon etxegabeen artean, eta emakumeen artean genero indarkeria eta harreman sentimentalen banaketak ziren nagusi. Ez hori bakarrik, bizitokirik gabeko emakumeek gizonen baino adierazle okerragoak zituzten maila gehiengotik: osasun fisiko zein mentalean, gizartean, harremanetan, ekonomian...

### “*Dones amb llar*” egitasmoaren bitartez hasi zinen elkarte honetan? Zer da zehazki?

Unean uneko errealitatera egokitzen joan den egitasmoa da. Emakume etxegabeen testuingurua ikusezina zenean jaio zen, isilarazitako errealitate hori ikusarazi eta emakumeentzako baliabideak eta aukerak sortzeko helburuarekin, hain zuzen ere. Egiten dugun lana lerro guttitan laburtzea zaila da, baina funtsean, hiru adar ditu gaur egun: eguneko zentroa, etxebizitzarako baliabideak, eta sensibilizazioaren zerbitzua.

### Bartzelonan, etxebizitzarako diru-laguntzak eskatzen dituztenen %70 emakumeak dira. Zer deritsozu?

Argi dago kalean hain begi bistakoa ez den etxegabeen arazoak eragin zuzena duela emakumeengan, forma desberdinetan, eta sarri etxebizitzan bertan ematen da. Bizitoki arriskutsu eta desagokietan, berriz alokatutako logeletan bizi dira asko. Edo kalea ez joateagatik harreman toxikoak mantentzen dituzten emakume anitz dago. Kalera ez dira egun batetik bertara iristen eta guretzat hori ikusaraztea funtsezkoa da. Aukera guztiak erreta, etxebizitzarik gabe geratzen



"KALEAN EZ GERATZEAGATIK EMAKUMEEK BIZITZEN DITUZTEN EGOERAK MUTURREKOAK DIRA ETA BIZIRAUPEN ESTRATEGIA FEMENINOAK PASARTE TRAUMATIKO BILAKATZEN DIRA MAIZ".

diren emakumeak ezkutatu egiten dira aireportuetan, estazioetan edo ospitaleetako sarreretan. Eta kalean lo egitea bertzerik ez dutenean, kamuflatzen dira oharkabeen egoteko, gizonaen estetikarengatik, adibidez.

**Etxegabeen artean %13 emakumezkoak dira. Aldiz, pobrezia tasa altuagoa eta sozialki baztertuak izateko arrisku handiagoa dute gizonaen artean baino.**

Orokorrean emakumeak beranduago iristen dira kalera gizonak baino, krisi garaian baliabide pertsonalak mugitzeko gaitasun gehiago dutelako eta prekaritate hobe egokitzen direlako; erresistentzia gehiago dugu. Baina kalean ez geratzeagatik emakumeek bizitzen dituzten egoerak muturrekoak dira eta biziraupen estrategia femeninoak pasarte traumatiko bilakatzen dira maiz.

**Loturarik badago emakume etxegabeen eta indarkeria matxistaren artean?**

Noski. Sonia Panaderok emakume etxegabeekin egindako ikerketa batek agerian uzten du %41ak haurtzaroan edo nerabezaroan tratatu txarrak pairatu zitue-

la, eta %31k sexu erasoak. Zentzu berean, Bartzelonako Unibertsitateko ikertzaileek ASSIS eta bertze hainbat elkarterekin elkarlanean egindako *Bartzelonako etxerik gabeko emakumeak* informea egiaztatzen du elkarriketatutako emakumeen %70ak indarkeria pairatu duela. Gure zentzora datozen emakumeen joera ere berdina da, %67k indarkeria pairatu du etxebizitzan. Eta ziurrenik ezkutatuak indarkeria asko dago. Emakume askok hainbat indarkeria forma normalizatzen dituzte eta ez dute hala identifikatzen. Gauza bera gertatzen da sexu erasoekin. Lotsak eragindako hermetismo handia dago.

**Koronabirusak gogor zigortu ditu etxegabeak. ASSIS harrera zentrotik baliabide berriak bideratu dituzue norabide horretan. Zeintzuk?**

*Impuls* (Bultzada) izeneko harrera zentroa ireki dugu, COVID-19aren ondorioz kalean gelditu diren emakumeei zuzenduta, bost emakume bizitzeko iraupen luzeko bi pisu martxan ditugu eta bertze bi gehiago irekiko ditugu aurki. Egitasmoa beharrezko ondorioz sortu da. Krisi sanitarioarekin batera gizarte krisia etorri baita. Pandemiaren hasieran emaku-

me gutti gerturatu zitzaizkigun. Gerora hasi ziren etortzen, elikagaiak eskatzeko bakarrik lehendabizi, eta ondoren bizitoki eske. Kalean gelditu ziren eta kotxeetan edo trastelekuetan ari ziren bizitzen. Beren perfila ez zen ohikoa: oso gazteak ziren, edo adinekoak, seme-alabak zituzten...

**Bartzelonako Udalak *La Llabor* (Hazia) izeneko inklusio zentroa inauguratu berri du, etxebizitza eta gizarte bazterketa pairatzen duten eta bakarrik dauden emakume adinez nagusientzat. Nola ikusten duzu egitasmoa?**

Lan mordoa dugu egiteko zentzu horretan, baina geroz eta garrantzia handiagoa ematen ari zaio emakume etxegabeen errealitateari eta, ondorioz, udal baliabide berriak bideratzen hasi dira, honakoa kasu. Ospatu beharreko albiste da, zalantzarik gabe, baina emakume etxegabeen egoera ahaztuta egon dela kontutan hartuta, ezinbertzekoa da halako egitasmoetatik harago sektore eta alor desberdinen arteko elkarlana, genero ikuspegia barneratuko duten lan metodologiak garatu eta baliabideak hobetzeko. ●



## Bikotekidearekin larrua jotzea debekatuko dute, harreman egonkorrik gabeko jendea ez dadin diskriminatua sentitu COVIDaren aurkako neurriekin



HAURRAK DITUZTEN BIKOTEEK HARRIDURA AZALDU DUTE NEURRIAREN AURREAN: "SEXU-HARREMANAK? ZER ZEN HORI?"


Bikotekide egonkorrik ez dutenen protesta jendetsuek eragina izan dute azkenean: Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta Euskal Hirigune Elkargoak iragarri dute behin betiko ezabatu dutela COVID-19aren kontrako neurriek eragindako diskriminazioa. "Hemendik aurrera, bikotekidearekin bizi den jendeak erabat debekatuta dauka sexu-harremanak izatea", irakur daiteke publiko egin duten dekretuan. Bakarrik bizi diren pertsonak martxotik egindako eskariari erantzun diote horrela administrazioek: konfinamenduak eta ondorengo neurri guztiek asko zaildu diete bizimodu sexuala koronabirusa iritsi aurretik Tinderreko errege-erregina-erregine ziren *single fucker* guztiei. Erabakiak gizarteko beste sektore batengan harridura ere eragin du ordea: "Ahaztua neukan zer zen sexu-harremanen kontu hori egia esan", azaldu dio hedabide honi duela 14 urtetik ezkondua dagoen eta hiru umeren ama den Malu Bustia Elorrioko bizilagunak. ●

### SAREAN ARRANTZATUA

Komunisten aurkako superheroia



Robotak atzemateko test azkarra



EUSKAL SELEKZIOKO GOLEATZAILE NAGUSIA, COSTA RICAREN AURKAKO PARTIDA HASI AURRETIK "GERNIKAKO ARBOLA" ENTZUTEN.

## Javier Clemente: "Ofizialtasunetik gertuago gaude, baina oraindik urrun"

Javier Clementek, Euskal Selektzioa Iratzarri (ESI) fundazioko militante eta *Euskal mariatxia*. *Genealogia eta egungo futbola* liburuaren egileak, adierazi du ofizialtasuna gertuago dugula, "baina oraindik urrun". "Eusko Jaurlaritza eta ni neu gure esku dagoen guztia egiten ari gara selektzioa nazioartean aitor dezaten", azaldu du. "Espainiako instituzioei presio benetan gogorra egiten ari gara, horregatik irmoki onartu ditugu Madrillgo aurrekontuak jakin dezaten hemen

herri bat dagoela". Costa Ricaren aurkako neurketa inflexio puntua izan daitekeela dio: "Orain arteko partidek gehiago zuten folklorikotik beste edozerretik baino; ikastoleroak harmailetan, euskara batu baztertzailan eurek soilik ezagutzen dituzten kantak abesten... Ba hasteko, amaitu dira horrelakoak, aurtun publikorik ez baita izan. Hurrengo pausoa izango da areriorik gabeko partidak antolatzea, eta gero pentsatuko dugu Espainia eta FIFA nola limurtu. Poliki-poliki". ●



**Liburu-dendak**  
**Kioskoak**  
**Papertegiak**  
**Kale-saltzaileak**  
**Jostailu dendak**  
**Denda ekologikoak**  
**Nekazarien kooperatibak**  
**Pentsu dendak**  
**Loradendak**  
**Belar dendak**

...

# Erosi herrian

**Ez gaudela zure denda kuttunean?**

Deitu diezagula dendariak eta zitzu bizian bidaliko ditugu:  
679 81 73 54 / okorta@argia.eus

**Zuzenean ARGIA n erosteko**

[www.argia.eus/azoka](http://www.argia.eus/azoka)  
943 37 15 45

Euskarak lotzen gaitu,  
elkartu, anaitu,  
gertutasuna sortu,  
tarreak amaitu  
izan nahi dugun hura  
izateko gaitu  
euskaraz egiteak  
hori lotzen baitu  
konpartitzen dugunak  
aberasten gaitu.



EUSKARAZ ERE,  
NATURALTASUNEZ